


AIZA!

HONDARRIBIA - 2020KO UDA #007



1. Azala (Mikel Louvelli Nieves)
3. Sarrera
4. Koronabirusari esker fauna bueltatu egin da!!! ..ala ez? (Aitor Lekuona Alzugaray)
7. Konfinamendu Garaiko Mikro Sorkuntzak
16. Jostunek Heteropatriarkatuaren Zuloak Josi Zituztenekoa (Estitxu Urtizbera Sorzabal)
19. Zabor tartean, altxorra (Ane Muñoz)



Elkarrizketa

20. Pandemia y crisis del capitalismo (Nekane Juradorekin blagan)
28. Udarari begira elikadura osasuntsua betetzeko gomendioak (Hegoi Martin)
30. La mayoría de los jueces, con la banca (Jose Mari Erauskin Vazquez)
35. Musika kritika ('F')
36. Argazkiak: Telmo Lopez
38. Bertsolaritza Hondarribian (VI) (Iomani)
41. Liburu kritika (Maribel Gartzia)



UDALGINTZA

42. Abotsanitz Udal Taldearen informazioa
48. Kontrazala (Judas Arrieta)

ABOTSANITZ

San Pedro kalea, 37-2, 129 p.k.
20280 Hondarribia (Gipuzkoa)
abotsanitz@gmail.com
telf: 688 68 70 58

www.facebook.com/Abotsanitz
Twitter: @Abotsanitz
Instagram: abotsanitzherribatzar
www.abotsanitz.eus

Koordinazioa: Asier Perez-Karkamo
Diseinua eta maketazioa: Mikel Louvelli Nieves

Inprenta: Juaristi Inprimategia
Aiza! LG zk. SS-909-2016

Informazioa Antibirusa

Aiza!

Hemen gaude! Bizi dugun egoeraren berri emateko prest, irudi, pentsamendu, elkarrizketa eta bestelako gai interesgarriekin.

Informazioak, hartzen diren erabakiak hobeto ulertzen laguntzen digu. Gaur egun, baina, Hondarribiko udal gobernuak eta bestelakoek informazioa ezkutatu eta gobernatzen dutenen eta beraien inguru hurbilekoen interesetarako erabili ohi dute. Informazioa beti egon da boterearekin lotua, informazio zientifikoa, teknologikoa, norbanakoa... Eta egungo garaietan, informazio ugari dugula uste dugunean, nahi ditugun datu, informe, ikerketa, historia, eta abar denon eskura egoteko tresna ezin hobeak ditugunean, informazio interesatua bakarrik jartzen dute gure eskura: Netflix, erosketak, kontsumoa, jokoak, apustuak... Aldiz, bestelako informazioa, gurea, guk herritarrok sortutakoa, denon ondare izan beharko lukeena, ezkutatu egiten dute.

Zein da helburua? Zein izango litzateke herriaren erantzuna jakingo balu informazioa erabiltzen dela denon onurarako ez den beste zerbaiterako? Eta udal baliabideez zer esan! Zein informazio jasotzen duzu udaletik? Zer harreman duzu udalarekin? Egiten duenaren berririk ba ahal duzu? Ez al zaizu interesatzen zuk emandako diruarekin, herritarren baliabideekin udalak egiten duena? Nahikoa egiten duela uste ahal duzu?...

Hondarribia eraldatzen eta informatzen jarraitu nahi dugulako, Aiza! aurrera eta aurrera Hondarribia!!!





KORONABIRUSARI ESKER FAUNA BUeltatu EGIN DA!!!

...ala ez?

■ Aitor Lekuona Alzugaray

Martxoaren bukaeran, beste milioika pertsonen antzera, etxean gatibu ikusi dut nire burua, eta inoiz ez bezala, egunak joan eta egunak etorri, inguratzen gaituen munduaren berri guztiak ia eskusiboki bi *window*-etatik iritsi zaizkit: bata fisikoa, etxeko leihoa alegia, birtuala bestea, ordenagailua.

Lehenengo asteetan, SARS-coV-2 birusaren eta honek eragindako Covid-19 gaixotasun berriaren nondik norakoak izan dira nagusi nire leiho birtualean. Arreta osoz jarraitu izan ditut kutsatu-kopuruaren bilakaera iragartzen duten eredu matematikoak, proiektatutako heriotzen grafikoak edo infekzio-puntu kritikoen mapak. Leiho fisikoan aldiz, kaleak hutsik, kotxe eta zaratarik ez, eta naturaren hotsak nagusi: txorien udaberriko kontzertuak etengabe, aspaldian ikusten ez nuen gabiraia ehizan, usapala etxe aurreko zelaian... Hara! Normalean baino animalia gehiago ote dabil?

Konfinamenduak aurrera egin ahala, leiho birtualetik ere, birusaren pandemiak harago, naturaren inguruko berriak sartzen hasi ziren; nolabait esateko, nire bi leihoak lerrokatu egin ziren, bietatik antzeko diskurtsoa sartzen

zelarik. Txorien hegaldiak leihotik disfrutatzen nituen momentu berean, nire ordenagailuan zer eta: *El País-La cuarentena 'limpia' los canales de Venecia*, *El Confidencial-Jabalíes, corzos y osos por la ciudad*, *La Vanguardia-La fauna recoloniza la ciudad*, *El Correo-Los animales salvajes salen de las sombras...*

Tamalez, nire bi leihoek helarazten didaten mezua eta errealitatea oso bestelakoak dira. Datu zientifikoetara eta iturri fidagarrietara jotzen badugu, azkar batean konturatuko gara gizakiok ama lurrean eragiten ari garen bioaniztasunaren galeraz. Kalkuluen arabera, 2100 urterako lurzoru-erabileraren aldaketa, klima-aldaketa, nitrogeno-zikloaren aldaketa eta espezie inbaditzaileak izango dira, hurrenez hurren, munduko biodibertsitatearen galeraren eragile nagusiak. Gure planetan bizitzak 3.800 miloi bat urteko historia dauka, eta iraganean ere bioaniztasun galera bortitzak jasan izan dituen arren, oraingo honetan gu geu gara eragileak, eta gainera izugarri azkarra izaten ari da, Kretazeoan dinosaueroak desagerrarazi zituen meteoritoaren talkak eragindakoaren antzerakoa.

Izena/garaia	Duela (milioi urte)	Iraupena	Galdutako espezieak	Jatorria
Ordoviziarra-Siluriarra	439	500.000-miloi 1 urte	% 85	Supernoba eta glaziazioak
Devoniarra-Karboniferoa	367	3 miloi urte	% 82	Bolkanismoa
Permiarra-Triasikoa	251	Miloi 1	% 96	Bolkanismoa
Triasikoa-Jurasikoa	210	Miloi 1	% 76	Pangea hautsi ondorengo bolkanismoa
Kretazeoa-Tertziarioa	65	30 egun	% 76	Meteorittoa eta klima aldaketa
Holozenoa-Antropozenoa	Gaur egun	?	?	<i>Homo sapiens sapiens</i>



Egia da noski, gure gizartearen metabolismo ero honek egindako etenalditxoak eragin positiboren bat izan duela Euskal Herriko faunan: kaio beltza (*Larus atlanticus*) lehen aldiz ugaltu egin da Gipuzkoan; belatz handiak (*Falco peregrinus*) aurrera atera ditu bere txitak normalean jendez lepo dauden lekuetan; eta orokorrean, konfinamendua udaberrian izanagatik, hainbat espezieri mesede egin dio, normalean baino lasaiago ibili baitira lan kritiko hauetan.

Baino ez diezaiozun iruzurrik egin geure buruari, eragin positibo igarokorra izan baitu gure gizarteak egin duen *paradinha* honek. Eta ez dezagun ahaztu animalia espezie gehienek konfinamenduaren iraupena baino ziklo biologiko luzeagoak dituztela, eta hilabete gutxi batzuk ez direla nahikoak izaten beraien populazioak berreskuratzeko. Hau guztia gutxi balitz, konfinamendu garaian ez da dena arrosa kolorekoa izan gurean! Garai berean, munduan ugaztunik mehatxatuenetakoa den bisoi europar bat (*Mustela lutreola*) kotxe batek harrapatuta hil da, Zubietako zabor-errautegiari lotutako ustezko isurketa batek Arkaitzerrekako arrainak akabatu ditu, sai erre batzuk pozoia eraginez hilda agertu dira, etab.

Arriskutsua da oso zabaltu den mezu positiboa: "Animaliak bueltan dira!" Arriskutsua, egi ustela delako; fenomeno

sozial interesgarria da ikustea nola ia denok lerrokatu dugun gure pentsaera gai honen inguruan, harrigarria nola eraiki dugun ideia kolektibo positibo hau. Koktelaren errezeta hau litzateke: kazetaritza estilo efektista + sare sozialek barreiatutako mezu positiboak (egiak zein *fake news*-ak) + konfinamendua (inoiz baino denbora gehiago leihoei begira) = *happy flower* mundua. Baina tira, ez diezaiozun besteei errua bota, agian gure subkontzientearen mekanismo bat izan da, nolabait errealtate paralelo positibo bat eraikitzearen beharra izan dugulako, bizi izaten ari garen urduritasunari aurre egiteko, itxaropen izpi bat hodeitzarren artean bilatze aldera.

Aurrerantzean, saiatu gaitzen leihotik begiratzen dugun bakoitzean halako antibirus bat jartzen, desinformazioaren kontrako filtro bat. Izan gaitzen kritikoak, zeren leihotik Peter Panen mundua iristen zaigun bitartean, gure espezieak natura txikitzen jarraitzen du, airea zikinduz, itsasoa pobretuz eta gure planetaren bioaniztasuna eta konplexutasuna sinplifikatuz. Eta mezu global hau gurera ekartzea ere badago, urrutira begiratu gabe, oraindik gure herrian ditugun altxor naturalei arreta gutxiegi jartzen baitzaio, eta tamalez udal-agendatik kanpo dagoen gaia jarraitzen du izaten. ■

Durante el confinamiento, lo que veíamos a través de las ventanas –las de casa y la del ordenador– nos pudo llevar a engaño. Porque, junto a las terribles consecuencias de la pandemia, parecía que la fauna recuperaba sus espacios, fenómeno transitorio que en gran medida ha sido manipulado por algunos periodistas y redes sociales que han apostado por un falso mensaje positivo. Los datos científicos siguen demostrando una pérdida grave y galopante de la biodiversidad, y los responsables somos casi exclusivamente nosotros, la especie humana.



KONFINAMENDU GARAIKO MIKRO SORKUNTZAK

**Herriko hamar sortzaileri
-5 idazle eta beste 5 artista plastiko-
bikoteka lan egiteko eskatu genien,
modu askean, koronabirusak eta itxialdiak
sortarazi ziena irudikatzeko.**

Aiert Alonso
Uxoa Anduaga Berrotaran
Jon Aperribay Calvo
Judas Arrieta
Mixel Arzak
Naiara Goikoetxea Guzman
Maider Goikoetxea Enparan
Martxel Mariskal
Patxi Muñoz Ancisar
Mikel Sagarzazu



gau-soinekoak burdina kolpez
erori ziren itsaso zimurtuaren oinetan
aitona-amonak lau pareta artean gatibatu genituenean
azala amorruz urratzeari ekin ziola gure haurtxoak
gu guztion zauriak errotik sakontzeraino

hezur horixkak balira bezala
kizkurtu zitzaizkigun ispiluak begien aurrean
eta sugandilek giza errauts epeletan
birkokatu zituzten arrautzak
udaberri odol hotza

eskuetan usteltzen zaizkigu lurrin belarrak
ezkutuan musukatzen ditugu estolda zuloak
tximeletaren hegaldia irudi dezake sarraskiak
udaberri odol hotza

auto-induljentziaz mozkor bueltatu gara
sekula bertatik guztiz irtetera iritsi ez ginen leizera
bufoiak urrezko kakalardoak miazkatzen
ikusezintasunaren beldur
larre fluoreszentearen nostalgiko zinikoak


euforia betean esnatzen dira
berriro ere zakur zuri zitalak
gure gorputz biluziek ezin ihes egin
letagin zorrotzen mosaikotik
sehaskaren zain mingotsak
marraskatzen sator gosekilak
ahantzurak ez digu utziko
urrun hegan egiten

satinezko uhinen aparretan
isilean badoaz
gure jelazko zilborrak
dagoeneko ezinezkoa zait
deusi grinaz ekitea

benetako bizitzak agian
ez zuen gure premiarik
gu geu gara pandemia
gu geu gara pandemia



Handwritten text in a cursive script, likely a form of Urdu or Persian, covering the right page of the book. The text is written in a fluid, connected style, typical of these languages. It appears to be a letter or a short piece of prose, with some lines starting with decorative flourishes.



SUDOKU AMAITU GABEAK

Ahateak Butroi pasealekuan zehar ikusten ematen zuen eguna,
sukarrak uzten zionean behintzat.
Amorruz itzaltzen zuen telebista semeak
kurbari buruz hasten zirenero;
"No tenéis ni puta idea".
Jada ez ziren zenbakiak bakarrik beretzat.


Egunean bitan edo,
siestatik esnatzean,
gelako atea apur bat irekitzen zuen amak, semearekin tarte batean hitz egiteko.
Beldurra ikusten zuen bere begietan;
besarkatzeko aukerarik ez, ordea.

Semeak jada ez daki zenbat egun pasa diren hau dena hasi zenetik,
monotoniak denbora subjektibo bilakatzen du.
Paretak elkarri hurbilduz doaz pixkanaka.
Ametsetan ematen dugu eguna,
zer egin ateratzean, nora joan, norekin,
mundua guztiz aldatu dela konturatu gabe.
Errealitatea eta eromena urtzen ari dira poliki-poliki.

Amak leihotik begira jarraitzen du.
Laster amaituko da dena;
laster irtengo gara kalera.
Zain ditugu zelai berdeak, zain zeru urdinak, zain itsasoko ur gardena.
Amak gelako atea ireki eta zera galdegin dio semeari:
"Nora joango dira Butroiko ahateak?"

-Testua: Jon Aperribay Calvo / Marrazkia: Patxi Muñoz Ancisar-

Olatua putru epeletik begiratu den
beste koroan ahulgortidun bat baiho et zara



-Testua: Uxo Anduaga Berrotaran / Marrazkia: Naiara Goikoetxea-



BAKARDADEA

Kanpoan fresko ari du.
Alde zaharreko kale estuen artean
kanporako balkoia
-6 baldosa eskasi balkoi deitzerik bada-
Bientzako lekurik ez,
eguzkirik ez,
parean harrizko eraikin grisa
eta hala ere, egun hauetan
hilabete pasatzoko itxialdi honetan
askatasunaren sinbolo.
Kartzela ttiki bat zena
da ihes egiteko aukera bakarra egun hauetan.
Garagardo bat hartu, pikatzeko zerbait
eta bertan eseri
kale hutsen isiltasunaz, aislamenduaren aislamenduaz
bakardadeaz,... gozatu.
Pareko balkoira agure alarguna atera da orduan
landare zimela ureztatzeraz.
Hara eguzki izpi batzuk iristen dira
eta haie begira jarri da begiak itxiaz.
Hasi natzaio
gustura hartuko nuela balkoi horren goxotasuna
eta berak, begiak irekiaz
azala bero baina bihotza hormatua duela,
eguzkiak ez duela emakume batek adina berotasunik ematen.
Garagardoa altxa, konplizidade keinu bat egin
eta azken tragoa emanaz
zera okurritu zait:
BAKARDADEA
konpainia ederra dela zuk bilatua denean,
baina maitale krudela berak topatzen zaituenean.
Eta neskarengana barrura egin dut,
goxotasun apur baten bila.

Kanpoan hotz ari du.



Ane, boxeoko bi guante pare eskutan dituela egongelan sartzen denean, Igorrek fantasma baten itxura hartzen dio. Baina mamurrek ez dio beldurrik ematen. Gainera urrutira joan nahi du. Ilargira, akaso.

Horregatik, animatu eta Aneren parean jartzen da. Besoak elkarrengana luzatuz, distantziak neurtzen hasten dira. Hankak dantzan, eskuin-ezker, sorbaldekin bat bestea sahiesten. Izerditan daude. Elkar itxeki eta itsas elefanteak izango balira bezala sobreaktuatzen dute. Laugarren, bosgarren, seigarren erasoak. Jolasaren noraezean.

Telebista bazterrera eramaten dute, jaurtiketako batean balantzaka hasi eta ia lurrera erori delako. Lona, Igorren gurasoek oparitutako alfombra handi itsusi bat da. Aire falta zaie eta atseden hartzen dute, ura edan eta sakon arnasteko.

- Jarraituko degu? galdetzen du Igorrek. Anek ez du entzuten.

Amagoak eta gantxoak airean. Posizioak txandakatzen dituzte. Anek barruko lekua

lortu du eta Igor bere burua defendatu nahian dabil liburuen apalaren aurrean. Kamera motelean ari dira bata besteari kolpeak ematen.

Ateko txirrina entzuten da. Igorrek atea ireki eta ez du inor ikusten, baina lurrean ortzadarra marraztuta duen paper bat aurkitzen du, honako esaldi hau idatzita: "Dena ondo aterako da". Behin eta berriz irakurtzen du, buklean.

Dinbi Danta

Baina bukle hori Aneren eskubikada bikainak etengo du. Aurpegiaren erdian jaso du kolpea. Isilune hotz bat nabari da hondarrean. Igorren sudurra zuzen dago baina odolez blai. Alfombra zikin zikina. Anek erreakzionatu du eta kotoia, ur oxigenatua eta eskuoihalaren bila doa korrika.

Kezkatuta daude, baina gau horretan, aspaldiko partez, jarraian lo egitea lortzen dute.

Bakoitza bere autoan iritsi eta ahal duten moduan aparkatzen dute. Arropa aldatzen duten bitartean, Larrialdietako sarrerak dragoi baten antzera egiten du orro. Unitate desberdinetan egiten dute lan.

-Testua: Mikel Sagarzazu / Marrazkia: Judas Arrieta-



JOSTUNEK HETEROPATRIARKATUAREN ZULOAK JOSI ZITUZTENEOA

Estitxu Urtizberea Sorzabal

edo nola
koronabirusaren
kudeaketa
heteropatriarkalak
berriro ere betikoak
desagerrarazi dituen



ABIAPUNTU BAT:

Urteak daramatza lehen munduko industria azpigaratutako herrietara lekualdatzen. Garpeneren izenean, iraunkortasunaren izenean, guretzako ez duguna nahi besteei pasatzen (manufaktura kanpora ateratzen, eskuz egindako gauzak prestigioa galdu dutelako eta enpresei *oso garesti* ateratzen zaielako); eta guretzako nahiko genituzkeenak arrantzatzen saiatzen (puntako teknologiarekin lotutako industria, robotika, automatizazioak, gauzen Interneta... gogoa duenak ikus dezala kanpoko inbertitzaileak erakartzeko SPRI-k bere webgunean duen bideoa).



Hemengo industria beste herrietara eramateari **deslokalizazioa** esaten zaio. Prozesu honek jende asko diru asko irabazi ahal izatea eragin du, lurraren beste puntan bizi diren beste pertsona batzuen egoera ahulaz baliatuz, eta bertako jende asko lanpostua galtzea eraginez. Lanpostuak galtzea ez da ondorio bakarra izan, sektore askotan industri-ehun guztia deseginda geratu baita.

Kapitalismoa zera da: denboraz, euskarriz eta lekuz mugatuak diren sistemetan oinarritutako hazkunde jarraitu eta mugagabea bezala saldu diguten gezur patriarkala. Eta egungo etengabeko hazkundearen eredu horrek gure eta planeta beraren biziraupena arriskuan jartzen du.

Kapitalismo honek baina, produktu asko maiztasun handiz eta prezio baxuan kontsumitzea ahalbidetu digu. Kontsumo burbuila batean bizi izan ditugu azkeneko hamarkadak. Eta bat-batean, hondamendia gertatu da.

Sistema kapitalista honek sexuaren araberako

lan banaketa sortu eta betikotu du. Sistema binario eta zapaltzailea da. Banaketa honek bereizten ditu alde batetik lan **produktiboa** eta bestetik **erreproduktiboa**. Emakumeek jarraitzen dute rol erreproduktiboarekin zerikusia duten egitekoen arduradunak izaten.

Zeregin erreproduktiboak ikusezinak bihurtzen ditu sistema honek, hauek eremu pribatukoak eta ordaintzen ez direnak baitira. Sistema kapitalistak emakumeen lanaren zati handi bat (zaintzarekin eta etxeko lanarekin zerikusia dutenak) ikusezin bihurtzen duela, alegia.

EGOERARI AURRE EGITEKO, ZULOAK JOSTEN:

Koronabirusa etorri da eta sistema infinitu honen gabezi eta iruzurrak azalarazi ditu. Gure hornitzaileak ziren herriak ere beraien ekoizpena gelditu dute. Lehen lortzeko errazak eta merkeak ziren produktuak eskuratzea odisea bat bihurtu da. Gure lurraldearen autarkia-eza garbi ikusten da eta garatu dugun dependentzia oso handia da.

• Gaixotu egiten gaituen birus txiki batek lortu du hau guztia. Eta gaixotasun honi aurre egiteko babes-ekipoak behar ditugu. Baina ez ditugu.

• Eta eskatu ditugu?
• Txinara. Baina hango fabrikak ere itxita daude.

• Eta hemen egiten baditugu?
• Ezin da.
• Zer ba?

• Industria dena hara eramán dugulako.
• Eta orduan??

• Zeretik hasi beharko gara.
• Nola egin daitezke babes-maskarak eta babes-batak?

• Josten.
• Bale ba hitz egin dezagun ehungintzako enpresekin.



- Ados.
- (...)
- Ehungintzako enpresek ez dute tailerrik hemen. Hauek (hauek batez ere) izan ziren deslokalizatzen lehengoak. Gainera Jaurlaritzarentzat ez da inoiz sektore estrategikoa izan ez baita haiek darabilten I+D+i eskema horretan sartzen.

- Normala da, sektore feminizatua da, bai eskulanean bai kontsumitzaileetan.

- Oraindik gelditzen dira tailer txikiak. Agian prest daude?

- Hitz egin dut haiekin. Denen kasua berdina da. Autonomoak dira, eta oraintxe ez dute lanik alarma egoera hau dela-eta.

- Eta denak emakumeak?

- Bat ezik, bai.

- Eta zer diote?

- Ea noiz hasiko diren babes maskarak josten.

- Benetan? Badakite lan boluntarioa dela?

- Bai.

- Sosik eta errekonozimendurik jasoko ez dutela?

- Baita ere.

Asteetan zehar milaka babes-maskara josi dira. Emakume jostunez osatutako sare txiki batek milaka babes maskara egin ditu: Ondo koordinatutako prozesuak jarraituz, beste erakunde batzuek emandako materialekin, orduan 6 babes maskara egiteko gaitasunarekin. Musu-truk aritu dira, beraien etxeetan, lan ikusezinak egiten diren eremu horretan. Administrazioek ez diete beraien lana aitortuko. Are gutxiago ordainduko, erreprodukzio lanak baitira.

PARADOXA BAT:

Bolo bolo ibili da *Forbes* aldizkariak ateratako artikulu batek egiten zuen baieztapena: Emakumeek zuzendutako herriek modu egokiagoan egin diote aurre osasun-alerta honi. Hemengo komunikabide askok jaso dute ideia bera eta makina bat artikulu irakurri ahal izan ditugu

tesis berdinen inguruan. Baieztapen hau irmoki defendatu ahal izateko beste aldagai asko kontutan hartu beharko genituzke (demografiaren ezaugarriak, testuinguru sozio-ekonomikoa, egoera geografikoa...).

Aitortu behar da emakume bat herriaren zuzendaritzarako aukeratua izateak, gizarte horri buruzko informazio asko eskaintzen duela: politika, boterea edo kudeaketa ulertzeko modu barne-hartzaileagoak dituztela adierazten du. Kasu hauek, hausnartzeko tartea ematen digute. Lidergoa gauzatzeko ohikoak ez diren moduak erakutsi dizkigute.

Egoera nahasietan lidergoa adeitasunez eta kemenez burutu daitekeela frogatu dute. Lana enpatia eta arretaz eginez milaka bizitza salbatu daitezkeela demostratu dute. Gerra-egoera izendatu ordez, liskarra sustatu ordez, emakume hauen besoak besarkada bat emateko prest agertu dira uneoro. Azken finean, politika egiteko beste modu batzuk daudela agertu dute: **Bizitza erdigunean jartzen duten politikak hain zuzen ere** (feminismoak aspalditik aldarrikatu duena, hain zuzen ere).

Gutako askoren imajinarioan emakume hauek zilegitasuna bizkor irabazi dute ondorengo prozesu honekin lotu baitugu: pandemia honek erakutsi digu lehen beharrekin zerikusia zuten eginbehar asko feminizatuta daudela; zaintzaren betebeharra betetzen duten pertsona horien irudiak gogoan ditugu (osasun zerbitzuetako langileak, garbitzaileak, supermerkatuetako langileak, 3. adineko erresidentzietako langileak...).

Bi kasuetan, emakumeak izan dira arriskuaren aurrean jarri direnak gizarte babesteko.

Patriarkatuak eta kapitalismoak dimentsio kolektiboa alde batera uzten duten eta irrealak diren agintari-superheroiak saltzen dizkigute. Errelato murriztatzaile honen aurrean zabal dezagun komunitarioa, parte-hartzailea eta jostunez osatutako ametsa. ■

ZABOR TARTEAN, ALTXORRA

■ Ane Muñoz

Koronabirusa dela ez dela, honez gero ohitu gara filmen bat ikusi nahi dugunean aretoetako egitarauak begiratu ordez plataforma ezberdinetako aukera anitzen artean bilatzen. Eta ez da zaila, ez, pantaila handian estreinatutakoan pasa egin zitzaigun film interesgarri bat baino gehiago sarean topatzea. Horien artean, biziki gomendatu nahi dizuet *Ventajas de viajar en tren*, Aritz Moreno donostiarrak Antonio Orejudoren eleberria egokituz zuzendu duen lehen film luzea.

Izugarri aske eta ausarta, ez dago edonori zuzendua; amari ez nioke gomendatuko, ezta film erromantiko samurrak edota mamirik gabeko akziozko film linealak atsegin dituztenei ere. Bai ordea, ohikoak ez diren filmak gustuko dituztenei eta eskaintza alternatiboen maitale guztiei. Intentsua, iluna, mingarria eta mamitsua baita, barruak nahasten dizkizuten horietakoa. Batzuetan bihurria, maltzur eta basatia bestetan. Guztia, umore beltz eta eskatologikoaz bustita. To!

Helgak senarra psikiatrikoan utzi eta trenan hartuko du, etxerantz. Bertan, parean duen bidaiari enigmatikoak istorio bat kontatzea nahi duen galdegingo dio. Eta kontatzeari ekingo dio...

Matriuska baten modura eraikia, bata bestearen atzetik nolabait elkarlotuko diren istorio txikiak biltzen ditu. Istorio askeak, bakoitza tonu eta modu ezberdinean erakutsia, bakoitza bere pertsonaiekin, bere drama edo tragedia propioarekin.

Patologia eskizoide, paranoiko eta neurotikoak bizi dituzten pertsonaje multzoa aurkeztuko digu. Hau pizti koadrila: Luis Tosar eraldatu bat zaborrarekin obsesionatuta, Ernesto Alterio enigmatiko bat, Belen Cuesta bihurri bat, Pilar Castro sufritzailea, Quim Gutierrez beldurgarria, Macarena Gomez ezin samurrago bat... eta etxekoan artean, Ramon Barea, Iñake Irastorza eta Pako Sagarzazu ezinbestekoak.

Argazkia eta eszenaratzea bera bezala, soinu banda kristona da, *brutala*: adi Massielen *El amor* kantatu zaharrak ilustratzen duen eszenari, ikaragarria da-eta.



Nazioarteko mailan ere kritikarien eta ikusentzulegoaren mirespena lortu ondoren, kultozko film saritu honek nabarmen uzten du Euskal Herriko egungo sorkuntzaren aniztasun eta maila handia. ■



PANDEMIA Y CRISIS DEL CAPITALISMO

ENTREVISTA A LA ECONOMISTA
NEKANE JURADO

Nekane Jurado, prestigiosa economista, psicóloga clínica e investigadora de género, es autora de numerosas obras. En abril publicó un artículo muy interesante sobre “la agonía del petrodólar”. Estimulados por su lectura y en medio de las incertidumbres del estado de alarma, nos hemos dirigido a su encuentro con un pequeño cuestionario bajo el brazo.



.- Después de la desaparición de la URSS, durante dos decenios, el orden económico mundial estuvo claramente dominado por el imperialismo norteamericano. Pero en los últimos diez años ha cambiado el panorama y, según usted, ahora, definitivamente, el sistema financiero basado en el petrodólar está estallando. La pandemia del Covid-19 estaría siendo utilizada como pantalla para ocultar y como excusa para implantar el miedo y el control de la población. En la práctica, ¿cómo podemos diferenciar entre las manifestaciones de este estallido definitivo del sistema y las habituales de las crisis periódicas del capitalismo?

Vuestro enmarque es muy acertado pero la pregunta es muy compleja. Todas las características que se están poniendo de manifiesto en esta crisis señalan que es la crisis más globalizada, de más profundidad y amplitud que todas las crisis económico-sociales conocidas desde el siglo XIX. Todas las contradicciones del capitalismo están aflorando a la vez y todo el edificio de superpotencia económica diseñado por EEUU desde 1945 para su beneficio exclusivo a través del control monetario y militar a nivel planetario se está desmoronando. El cambio de hegemonía es real, China, con el yuan-oro, es ya el centro del nuevo polo hegemónico mundial, aunque EEUU como gigante moribundo puede hacer aún mucho daño.

Pero el capitalismo es mucho más que el modelo de EEUU o la UE. Se ha incrustado en sociedades comunalistas, se ha hecho *transgénico, híbrido*, lleva más de una década readaptándose y esta crisis, más que un peligro, la está viviendo como su GRAN OPORTUNIDAD. La tecnología 5G de robótica de alta inteligencia artificial y en muchas áreas también emocional, está preparada para ocupar millones de puestos de trabajo en todos los niveles, desde cajas de supermercado hasta fábricas enteras robotizadas.

El Covid-19 es para el capitalismo su oportunidad para convencernos de que por el bien de nuestra salud se necesita *menos aforo humano* en los centros de trabajo.

Hasta que no entendamos plenamente que la lucha de clases está más activada que nunca desde los de arriba hacia los de abajo, estrujarán la maximización de beneficios por encima de cualquier consideración. Produciendo vacunas, control social, *seguridad*, todo le sirve al capitalismo para seguir su senda de destrucción. Es el 9%

Solo la conciencia de clase y la lucha real que de ella emane puede frenar al capitalismo. Ni los virus, ni el buenismo colectivo, ni la lucha virtual en las redes lo frenará.



contra el 91% de la población mundial. Sólo la conciencia de clase y la lucha real que de ella emane puede frenar al capitalismo. Ni los virus, ni el buenismo colectivo, ni la lucha virtual en las redes lo frenará.

.- La República Popular China ha demostrado elevados niveles de eficacia en el manejo de la pandemia del Covid-19 y también ha ejercido notables acciones de solidaridad con otros pueblos del mundo que recuerdan a las habituales del internacionalismo cubano. China, además, encabeza la política de *desdolarización* que, según usted, ha puesto contra las cuerdas al imperialismo estadounidense. Se manejan términos como *capitalismo de estado, socialismo de mercado o socialismo con características chinas*. Concretamente, en su proyección internacional (África, América Latina, etc.), desde el punto de vista económico, ¿qué opina del comportamiento de China? ¿Es una potencia imperialista más?

Llevo estudiando China desde que en la Cumbre de Lisboa (UE, marzo 2000) se la señalaba como país a mantener estrechamente vigilado en su rápido despegue económico y social. Veinte años estudiándola y aún siento que se me escapa.

Para mí ha sido necesario captar en su esencia el pensamiento de Xi Jinping imbuido en la filosofía de Confucio. Es el pensamiento confuciano la amalgama que une y da coherencia a la *cultura china de lo común*, más allá del término comunismo que venía importado para esta cultura milenaria.



El término comunismo lo escriben 共產主義 que es *doctrina de la propiedad común*, y el término gremio (asociación comercial) lo escriben como 公会 *profesión en común*, el término mercado 市場 va unido también a lo público, y este mercado se conoce desde el Neolítico como parte del modelo ancestral de relaciones comunitarias y solidarias muy complejas que se extendió durante 2.450 años hasta el final de la dinastía Chou.

Mao intentó llevar el comunismo a un país con profundas estructuras comunales, con las que chocó. Aceptar este hecho y *revalorizarlo* actualizándolo al S. XXI, ha sido el gran logro de todo un país. Por supuesto que China no es comunista, tampoco la palabra *capitalismo de estado* como lo define occidente es correcta. Posiblemente lo más correcto sería hablar de un *socialismo con características inherentes a China*. Es un nuevo socialismo que integra la experiencia civilizatoria de China, imbuida en una economía social anterior al nacimiento del Socialismo del S. XIX. Un pilar de su filosofía es la oposición clara al sentimiento moderno *de libertad*, definido en su cultura como mero individualismo, algo que va en contra de la armonía comunitaria que es uno de sus grandes valores.

Resumiendo: no veo a China como una potencia imperialista. Se proyecta en busca de minerales y materias primas, pero lo hace imbuida de su filosofía comunal del comercio, donde todos deben sentirse ganadores. Las grandes infraestructuras de la Nueva Ruta de la Seda, los tratados comerciales de justo-in-

tercambio (así lo sienten Venezuela, Cuba y los países africanos o de América Latina donde están comerciando), y el deseo manifiesto de no buscar un nuevo orden económico unipolar sino una red equitativa de multipolaridades, así lo confirman.

.- El confinamiento y el estado de alarma han sacado a la luz múltiples aspectos del ser humano. ¿Qué opina sobre el fenómeno de los ya conocidos como *policías de balcón*, también trasladable a ciertos comportamientos en las redes sociales? ¿A qué cree que se debe?

Los campos nazis usaban a otros prisioneros como guardianes. ¿A qué se debe? En psicología se dice que lo contrario de la libertad es el miedo, no la prisión. El miedo nos hace muy vulnerables, no solamente en parámetros psicológicos sino físicos e inmunológicos. Manipulando el miedo pueden conseguir el autocontrol de la mayoría de la población y, con unos cuantos vecinos entusiastas, los *disidentes*, llamados ahora insolidarios con la salud pública, pueden ser detectados y ejemplarmente reprimidos económica o penalmente.

Del miedo se alimentan los autoritarismos y los fascismos.

.- En relación con la anterior pregunta, en general, ¿cómo ha visto a la sociedad vasca? ¿Ha respondido adecuadamente ante la crisis?

No he visto grandes diferencias. Aplausos a los represores, guardianes de balcón, aplausos al sector médico pero que no vivan en mi portal, aceptación silenciosa del aislamiento inhumano de las residencias, miedo y más miedo, y "...mientras sobreviva yo y mi familia...", esto lo he visto y oído.

En Euskal Herria también se ha impuesto un régimen de vigilancia y cuarentena biopolítica, con la pérdida de libertad y de humanidad que generan la histeria y el miedo colectivo.

El hedonismo imperante exaltado como elemento de consumo en la pandemia, conduce a sacralizar la vida como bien más absoluto. Yo pienso que si alguien no sacrifica su vida por algo, esa vida ya no vale nada. Y la Euskal Herria de 2020 no es la solidaria, la luchadora, la dadora de vida, que conocimos cuando éramos jóvenes, aunque sigamos queriendo creer lo contrario.

Estamos en el sobrevivir, custodiados por los administradores del miedo. Sobrevivir se está convirtiendo en algo absoluto, como si estuviéramos en un estado de guerra permanente. Esta es la nueva normalidad si no somos capaces de desafiarla y VIVIR con mayúsculas, en la lucha de una nueva construcción económica y social.

.- Dentro de la Unión Europea el gobierno español es uno de los que han tomado medidas más restrictivas para evitar la propagación del virus, evidenciando (o dando la impresión de) falta de confianza hacia la población. ¿Cree usted que la sociedad en el Estado español en general, y en Hego Euskal Herria en particular, no es lo suficientemente madura para actuar responsablemente ante una situación como la que estamos viviendo? ¿Cree que el gobierno español ha aprovechado la coyuntura para centralizar el poder, o lo ha hecho por miedo a que la U.E. le eche en cara no haber hecho lo suficiente?

No soy médico, me cuesta mucho creer que esto ha sido solamente por motivos del contagio del Covid-19, ni por las tasas de mortalidad. Lo que está sucediendo lo comprendo más desde la situación de profunda crisis del capitalismo y de la oportunidad de *transformación* y regeneración que le concede el virus.

Creo que han existido dos niveles de imposición: supranacional y estatal.

A nivel de un diseño supranacional, realizado desde los centros de poder del capital, el confinamiento en los distintos países ha sido utilizado desde su inicio para un gran estudio psíquico-social, en tiempo real y manipulado en todo momento desde una información unificada, monotemática y homogénea. La monitorización de afectos, sentimientos, motivaciones... ha alimentado la base de datos para la fase de gran robotización y aceptación de la gran precariedad que tienen diseñada.

El Gobierno español, con una derecha que no ha vivido la depuración del fascismo de la que es hija directa, ha desarrollado un plus más de control y de limitación total de libertades y derechos básicos, como es por ejemplo el del acompañamiento en una muerte digna. Hemos asistido atónitos a seis períodos de Estado de Alarma consecutivos, a noticieros convertidas literalmente en Partes de Guerra Diarios, con más militares



que civiles en el atril, a la suspensión de derechos competenciales básicos de todas las CCAA, a multas mayores que el importe de las pensiones mínimas, incluso con detenciones por *desacato*, aprobado todo ello, por acción u omisión, por TODOS LOS PARTIDOS POLÍTICOS VASCOS.

Y todo esto ha sucedido ¿porque no somos lo suficientemente responsables? o ¿porque, como señalaba antes, hemos sido parte de un gran experimento social para perfeccionar el control y neutralizar la respuesta de la posible disidencia?.

Para la nueva fase necesitan un control estricto, han puesto en valor a todos los cuerpos represivos del estado, y esta represión se ha extendido como *represión de los cercanos* e incluso autorrepresión.

El Gobierno español ha sido alumno aventajado en esta tarea. Como reconocimiento el Eurogrupo apuesta por que su próxima presidenta (sería la primera mujer) sea Nadia Calviño, Vicepresidenta del Gobierno en Asuntos Económicos y Transformación Digital.

.- Se habla de *vuelta a la normalidad* pero la normalidad en el capitalismo es espantosa. Además del efecto cortina y del miedo impuesto, a corto plazo las consecuencias económicas del estado de alarma y del confinamiento se están demostrando devastadoras. A partir de ahora, esta situación puede repetirse (o pueden repetirla) en cualquier momento. ¿Cuáles son las expectativas a medio y largo plazo? ¿Cómo podemos prepararnos para enfrentar la *vuelta a la normalidad*?

Ya he señalado que la *nueva normalidad* que nos están programando será sobrevivir, en condiciones sanitarias

y económicas cada vez más precarias. Como señala el filósofo coreano Byung-Chul, con la pandemia nos dirigimos hacia un régimen de vigilancia biopolítica.

El shock es un momento favorable para la instalación de un nuevo sistema de reglas. El choque pandémico hará que la biopolítica digital se consolide a nivel mundial y dará lugar a una sociedad disciplinaria. No solo nuestras comunicaciones, sino incluso nuestro cuerpo, se convierten en objetos de vigilancia digital. A esto se une la amenaza de una sociedad en cuarentena biopolítica en la que quedaría limitada permanentemente nuestra libertad.

Y estas nuevas reglas están todas ellas encaminadas a contener lo que alguna vez llegará: el inmenso levantamiento popular que en verdad derrote al Capital. En 2020 el Capital tiene más miedo que nunca porque su devaluación genocida ha superado todas las líneas rojas.

Para salvarse inician la última fase, la de la robotización masiva y sus consecuencias últimas. Billones de euros y dólares se han impreso desde marzo -ni para reconstruir los daños de la Segunda Guerra Mundial se creó tanto dinero- y están yendo directamente a financiar esa *nueva economía*, hacia la caja de las grandes corporaciones; es un dinero para *la economía del mañana*, para *reconvertir*.

En Euskal Herria, al inicio de la crisis de 2008, la Deuda Pública era de 1.510 millones de euros (642 millones Euskadi y 868 Nafarroa). En 2020 ha pasado a 13.154 millones de euros (9.721 Euskadi y 3.432 Nafarroa) sin saber aún el coste de la pandemia. Lo que sí sabemos es que desde marzo de 2020 la Deuda Española ha subido casi un 30%, ya supera 1,225 billones de euros.

Una vez más se trata del dinero de todos que va a pagar el pueblo a través de una reestructuración profunda del gasto público, más recortes sociales y más paro. Millones de ERTes van a convertirse a EREs y de ahí al crudo desempleo que se sumará al de los perdedores de las crisis anteriores.

Todo esto es lo proyectado por el capital, que es la locomotora de un tren que podemos abandonar. Este futuro posible no tiene por qué ser infaliblemente el nuestro: desde la consciencia y la lucha hay otros futuros posibles.


.- Desde hace más de una década la deslocalización, la globalización y otros factores han traído una notable reducción de la actividad industrial. Esto ha provocado una desviación del empleo hacia sectores, como el de los servicios, donde hay mayor precariedad. ¿Cree usted que esta crisis que ha estallado puede acarrear una reestructuración de los diferentes sectores (primario, industrial, servicios)? ¿Buscaremos más lo cercano, o se impondrán con más fuerza las grandes elites y sus aliados los “políticos” con sus beneficios?

Desde 1977, crisis tras crisis, pacto tras pacto, el PNV y el PSOE han sido los ejecutores del gran desmantelamiento industrial de Euskadi. La industria ha pasado de ser el 49,9% del PIB vasco en 1977, el 29,8% en 2007, hasta el 23,9% del 1er Trimestre de 2020. La idea de la fuerte industrialización vasca, así como su potente lucha obrera o social, está más en el álbum familiar que en la realidad de 2020.

El sector Primario, agricultura y pesca, simplemente ha desaparecido. Desde la década de 1970, ha pasado de representar casi el 10% del PIB al 0,77% (menos del 1%).

El sector servicios más precarizado, comercio, hostelería y cuidados, ha ido ganando terreno como única salida posible para la mayoría de la juventud y de las mujeres, hasta situarse en el 69,62% del PIB.

GRÁFICO: % del PIB POR SECTORES EN EUSKADI (1997- 1º Trim, 2020)



Crisis tras crisis, la industria vasca ha aprovechado para reconvertirse y deslocalizarse, incluso el MCC, *tan cooperativista*

y enraizado en su tierra, está fuertemente deslocalizado en Asia, la antigua Europa del Este, América Latina y norte de África. Analizando los datos de nuestra estructura económica, vemos que no se trata de buscar lo más cercano porque no tenemos la más mínima soberanía alimentaria, ni de producir elementos de primera necesidad. Se trata, repito, de impulsar un cambio total de modelo económico, que valore y genere la cobertura de las necesidades humanas primordiales.

Mientras no les obliguemos a ese cambio, las elites políticas seguirán al servicio del capital, profundizando en las cifras señaladas.

.- Durante décadas en Hondarribia se ha promovido el turismo de forma desorbitada, hasta el punto de que la economía del municipio se basa en gran parte en el sector servicios. ¿Le costará más levantarse que a otras poblaciones donde la economía está más diversificada?

Ya no solamente toda la Costa Vasca, sino la mayoría del territorio vasco es *una marca turística*, y por ella compiten: patrimonio paisajístico, patrimonio cultural, patrimonio ecológico, patrimonio inmaterial, etc, aunado al *label* de todo lo etiquetable, que es la base de la economía vasca de los últimos 15 años.

Hondarribia es un enclave más de esta realidad. Creo que el turismo de masas va a quedar muy tocado, sobre todo por la agudización de la precariedad, pero el turismo de élite seguirá activo, posiblemente desplazándose hacia paraísos más solitarios.

Pero ¿es esto lo que nos preocupa?, ¿dejar de tener un contrato de camarera precaria?, ¿perpetuar este modelo de crisis permanente, del sobrevivir?

A mi me preocupa el modelo precario a golpe de ley que se ha impuesto con toda su crudeza en EH desde el inicio del S. XXI. Querer seguir afianzándolo, manteniéndolo a pesar de todo, me parece que nos conduce a la desintegración total como pueblo y comunidad.

.- En medio del estallido del sistema y las secuelas de la pandemia, parece que se impone la desglobali-

“La esclavitud no es a mis ojos el más grande de los infortunios humanos desde que conozco al proletariado (...) Trabajadores y trabajadoras del mundo, uníos”

zación. Pero vivimos bajo un régimen autonómico maniatado, falto de iniciativa y encabezado por dirigentes mediocres. La alternativa es un cambio de base radical, revolucionario, lo cual está de momento imposibilitado por la actual correlación de fuerzas. Pero no menos revolucionarias, a nivel local, ¿qué podría decirnos de iniciativas que seguramente están surgiendo desde la base en valles y pueblos de Euskal Herria?

Al inicio de la Crisis de 2008, los propios portavoces del G7, empezando por el presidente francés Sarkozy, nos decían que el Capitalismo había ido muy lejos, que iba a ser profundamente humanizado, que se iban a suprimir los paraísos fiscales, etc. Todo era mentira, era para frenar una vez más la Revolución Posible, la que siempre temen. Mientras, se daban prisa en inyectar dinero al capital, sanearlo, *resetearlo*. En 2020 nos hablan de lo lejos que ha ido la globalización, de volver a lo cercano, de la importancia que a partir de ahora van a dar a los cuidados, etc. Todo vuelve a ser mentira. Es para ganar tiempo para el nuevo *reseteo* que ya se está realizando.

Es cierto que los partidos políticos de la llamada izquierda, sin excepción, han asumido el discurso y la situación oficial. Me consta que en Euskal Herria la izquierda revolucionaria e independentista lleva varios años intentando estructurarse, mientras las diversas organizaciones de la Izquierda Abertzale Oficial (IAO), de forma ininterrumpida, torpedean todo intento de nuevas organizaciones de lucha, se filtran, absorben las ideas frescas para hacerlas propias y, tras pasarlas por su cocina les quitan la potencialidad, las convierten en ideas transgénicas, incapaces de fertilizar nada. Esto sucede mientras la mayoría de su militancia sigue sin ver la gran mutación. Por supuesto que el problema no es de la IAO, por este torpedeo, infiltración, desacreditación y difamación de militantes históricos. El problema es sobre todo nues-

tro, por el tiempo que hemos estado en shock, queriendo convencer y cambiar las cosas desde dentro de estructuras transgénicas e infértiles. Y además es nuestro por no saber sumar, porque existen muchas pequeñas hogueras que alumbran la resistencia en los barrios y pueblos de EH, pero necesitamos unir todos esos troncos en una gran hoguera, un fuego que no se apague y alumbre un nuevo futuro posible.

A esto se une un hecho demográfico demoledor: en 38 años (1981-2019) la población de Euskadi ha crecido solamente un 1,87% (de 2.141.809 a 2.181.919 habitantes). En el mismo periodo en Nafarroa ha crecido el 28,14%, y en el Estado español un 24,43%, casi 10 millones más. Al estancamiento se suma el envejecimiento, en 2019 los mayores de 65 años son un 22,72%, mientras que los menores de 20 años no alcanzan el 18%. Somos los mismos pero más viejos.

En Sociología Social se señala que las poblaciones envejecidas son más reacias al cambio, son un freno. La fuerza del cambio viene desde los grupos más jóvenes. Ante esto la generación de 1950 que participamos con orgullo en la lucha del pueblo trabajador vasco en todos sus frentes, debemos hacer un trabajo extra para mantener la fuerza ideológica y de movilización que la situación requiere. La iniciativa *Osasuna, Lana, Herria* trata de ser un lugar de encuentro, de suma, para afrontar este reto. Esperamos que tras el levantamiento del Estado de Alarma puedan confluír todas las fuerzas realmente transformadoras que están tomando consciencia, y acabemos integrados en una gran Herri Ekimena.

En 1841, siete años antes que el *Manifiesto Comunista*, Flora Tristán, en su obra *La Unión Obrera de Trabajadores y Trabajadoras*, escribió: “La esclavitud no es a mis ojos el más grande de los infortunios humanos desde que conozco al proletariado (...) Trabajadores y trabajadoras del mundo, uníos”.

.- Estamos siendo continuamente bombardeados por la prensa que apoya al sistema. Nos gustaría alguna recomendación en lo referente a comunicación y bibliografía. ¿A través de qué medios de prensa podríamos seguir la evolución de los acontecimientos?


¿Algún libro interesante?

No conozco medios de prensa escrita libre, exceptuando *Berria*, no quiero decir que no existan. Conozco muchas radios libres, y medios digitales pequeños, que están haciendo un gran trabajo, en Euskal Herria, Catalunya, el Estado español y a nivel internacional. No deseo citar porque me vienen a la mente los que más leo y parecería que cito a mis amigos, porque lo son.


A nivel bibliográfico creo que existe una ingente producción que está más vigente que nunca, que obligatoriamente hay que releer. Alfonso Sastre y Eva Forest nos han legado un muy seleccionado fondo editorial (Ed. Hiru) sobre la historia de la lucha de clases y el funcionamiento del capitalismo. Editorial Tigre de Papel, siguiendo la estela de Hiru, está publicando también una selección de libros sobre la lucha de clases que abarca los siglos XX y XXI en el pensamiento último de una gran pléyade de pensadoras marxistas y comunistas vivas de los cinco continentes, que siguen actualizando su obra desafiante frente al capitalismo.

Un día le pregunté a Alfonso cuál era, dentro de su propia obra, una lectura clave como guía de lucha y sin dudar me dijo *Los Intelectuales y la Utopía*. Ahí el gran reto.

“Utopía no es una quimera, utopía es lo que no hay todavía, y sería posible que hubiera, y es posible que llegue a haberlo, por medio de una práctica revolucionaria de la imaginación dialéctica, y a pesar de las ideologías reaccionarias”. Alfonso Sastre (*Imaginación, retórica y Utopía*).



Udaranari begira ELIKADURA OSASUNTZUA betetzeko gomendioak



■ Hegoi Martin

Pandemia egoera dela eta, aurtengo udara desberdina izango dela argi dago. Ez dakigu beste herrietara oportetara joan ahalko garen, hondartzara joaten utziko diguten edota tabernak eta terrazak guztiz irekiak egongo diren.

Baina argi dagoena da udaran ere elikadura osasuntsu bat izan behar dugula. Artikulu honen asmoa, udaran zehar elikadura osasuntsu bat eramateko gomendioak ematea da. Azpimarratu behar da, udaran, urtean zehar elikatu beharko ginatekeen modu berdinean elikatu behar garela. Gure elikaduraren oinarria ondorengoa izan behar du, udaran nahiz urteko beste sasoietan:

- Barazkiak, frutak, zereal integralak, lekaleak, fruitu lehorrak, haziak, arrautzak, arraina, esnekiak, haragia.

Beti ere, sasoi elikagaiei lehentasuna emanez. Hemen aurkitu dezakezue sasoi elikagaien egutegia: <https://elikaduraosasungarria.elika.eus/sasoi/>

*Kopiatu helbidea nabigatzailean
edo erabili QR kodea*



Zer gertatzen da udaran?

Kasu askotan, jendearen janari kantitatea handitu eta okerrago jaten da udaran. Hau urtero errepikatzen den dinamika bat da. Azukre eta gantz gehiegi duten jakien kontsumoa handitzen da batez ere. Hau dela eta, udararen amaieran jende asko ohartzen da kilotxo batzuk hartu dituela.

Nire ustez, dinamika hau aldatzeko, ez dugu jarri behar arreta guztia elikagai osasuntsuetan, baizik eta kontsumitu behar ez ditugun jaki kaltegarri horietan. Lortzen badugu jaki hauek (produktu ultra-prozesatuak) ahalik eta gutxien kontsumitzea, udara osasuntsuago bat izango dugu dudarik gabe.

Eta zeintzuk dira udaran gehien kontsumitzen ditugun jaki edo edari kaltegarri hauek? Badaude aukera osasuntsuagoak?

Ondoko taulan, udaran gehiago kontsumitzen ditugun jakiak azaltzen ditugu, eta ondoan, beste aukera batzuk. Gakoa, aukera osasuntsuagoak daudela jakitean dago, eta pausoz pauso jaki kaltegarri hauek, beste elikagai osasuntsuengatik ordezkatzeko joatea.

Gehiegi kontsumitzen direnak	Alternatiba osasuntsuak
Alkohola (garagardoa, ardoa, konbinatuak...)	Alkoholik gabeko garagardoa eta ardoa
Freskagarriak	Ura, tea, infusioak edo kafesnea izotzarekin
Frijituak (kroketak, txibierroak, patata frijituak...)	Ozpinetakoak, gildak, urdaiazpiko/gazta edo atun ogitartekoak,
Jaki prozesatuak (pizzak, lasagnak, kroketa izoztuak...)	Barazki egosiak, erreak edo plantxan, barazki entsaladak,
Postre gozotuak (tartak, pastelak, arroz-esnea...)	Fruta, azukre gabeko fruta konpotak, azukre gabeko jogurt naturala, gazta, edari begetalak
Izozkiak	Fruta eta esne irabiatuak, azukrerik gabe etxean egindako izozkiak

Udaran kontuan hartu behar dugun beste ezaugarri bat hidratazio da. Udaran tenperatura igotzen da eta horren ondorioz gehiago izerditzen dugu, beraz gorputzaren ur demanda handiagoa da. Haurrek eta adinekoek kontu handiagoa izan behar dute deshidratatzeko arrisku handiagoa dutelako gainerako biztanlearekin alderatuz.

Hidratatzeko, ura izan beharko luke hidratazio iturri nagusia, baina oso kontuan hartu behar ditugu barazkiak eta frutak, %80-95 bitarte urez osaturik daudelako, gainera zuntza (fibra), bitamina eta mineral ugari bermatuko dizkigute.

Entsaladak, barazki egosiak, gazpatxoak, salmorejo, fruta mazedoniak, fruta irabiatuak, infusioak, esnea edo edari begetalak asko hidratatzen lagun dezaketen aukerak dira.

Bukatzeko, hemen menu osasuntsu baten proposamena sasoiko elikagaiak kontuan hartuz. ■■■■

Gozaria

- Ahuntz jogurt naturala, olo-malutekin, marrubiekin eta kalabaza haziarekin nahastuta
- Kafesne edo infusio hotza

Hamaiketakoa

- Gazpatxo edalontzi bat

Bazkaria

- Lekak patatekin egosiak
- Atuna plantxan piperrekin
- Meloi xafra bat

Mendaria

- Platano eta olo edari irabiatua

Afaria

- Tomate entsalada
- Kalabazin eta tipula tortilla
- Udare konpota

LA MAYORÍA DE LOS JUECES, CON LA BANCA



■ Jose Mari Erauskin Vazquez

Cuando parecía que el Tribunal de Justicia de la Unión Europea (TJUE) de Luxemburgo había puesto final a la controversia relativa al IRPH (Índice de Referencia de Préstamos Hipotecarios) estableciendo con rotunda claridad, en la Sentencia C-125/18 de 3 de marzo de 2020, que las entidades bancarias que lo impusieron debieron informar al cliente, como mínimo, acerca de su peculiar método de cálculo y de su evolución en los años anteriores a la suscripción del contrato, nos encontramos con Audiencias Provinciales (Barcelona, Sevilla, Granada o Alicante) que han resuelto, con total desprecio al TJUE, desestimar las demandas de los afectados, dando así la razón a una Banca que no cumplió con sus obligaciones.

Tal escándalo ha llevado a que el Juzgado nº 38 de Barcelona, que fue quien tuvo el valor y la honestidad de plantear la cuestión ante el TJUE, vuelva a repreguntarle ahora a este mismo tribunal europeo.

Aunque hay otras actitudes en la judicatura, como en Málaga y Araba, la importancia e influencia de la Audiencia Provincial de Barcelona nos hace presagiar que será su interpretación la que acepte el TS (Tribunal Supremo), especialmente preocupado en minimizar los daños que para la Banca española podría suponer la devolución de todo lo indebidamente cobrado.

Un conocido bufete (Arriaga Abogados) ha presentado, de manera oportuna e imprescindible, una querrela criminal contra los Magistrados de las Audiencias de Barcelona, Sevilla y Granada, anunciando que hará lo mismo contra todos los Magistrados que desoigan la resolución del TJUE.

El panorama pinta especialmente grave porque no se trata de la lucha de algunos abogados contra los abusos de los bancos. Se trata de la lucha de esos abogados contra un sistema judicial que, dirigido por el nefasto Tribunal Supremo (TS), ha permitido a las entidades bancarias campar a sus anchas y obtener millonarios beneficios en base a unas cláusulas abusivas que han llevado a la ruina y a la exclusión social a miles de familias en España.

El Consejo General del Poder Judicial ha saltado rápidamente amenazándonos a todos los que nos oponemos a este sistema con solicitar del Consejo General de la Abogacía nuestra inhabilitación, negándose a revisar si los jueces denunciados cumplen, como es su deber, las resoluciones del TJUE.

La justicia española requiere, a mi juicio, de una profunda renovación de personas para afrontar el necesario cambio de principios y valores. No es comprensible

Aunque hay otras actitudes en la judicatura (...), la influencia de la Audiencia de Barcelona nos hace presagiar que será su interpretación la que acepte el Tribunal Supremo.

que el TJUE revoque continuamente pronunciamientos pro Banca del TS cuando éstos ya han causado un daño irreparable a los afectados, sin que ello conlleve destituciones inmediatas. Tampoco es comprensible que en septiembre de 2019 la Audiencia Provincial de Gipuzkoa rzone ampliamente, con arreglo a la Jurisprudencia del TJUE, que una petición de desahucio ha de ser desestimada, y al mes siguiente, en octubre, resuelva un caso idéntico en sentido contrario haciendo copia y pega de lo que dice el TS. Igual de incomprensible es que el sistema judicial español permita que la persona que durante 27 años fue Director Ejecutivo de la Asesoría Jurídica de la Caixa, responsable de dar cobertura legal a las cláusulas abusivas de la actual Caixabank, se incorpore como Magistrado de la Sala Civil del TS, precisamente la que tiene que resolver los conflictos respecto a dichas cláusulas. Un sistema que permite este tipo de situaciones es un sistema que necesita aire fresco.

Expuesta la situación en la que ahora mismo nos encontramos, entiendo que os puede interesar la evolución de los acontecimientos en mi experiencia personal.

Mi relación con el IRPH empieza allá por enero de 2013, cuando, recién constituida la plataforma Stop Desahucios Hondarribia, comprobamos que muchas personas que no podían afrontar la hipoteca carecían de recursos para pagar su cuota mensual fuera cual fuera su índice de referencia (Euribor o IRPH), pero que otras personas si disponían de ciertos recursos para

afrontar el pago de sus cuotas referidas a Euribor, no así al IRPH, porque este índice, por su peculiar método de cálculo, suponía un encarecimiento de entre 150 y 300 euros mensuales, lo cual llevaba al impago, a la acumulación de impagos, y al desahucio.

Pusimos entonces en marcha la plataforma IRPH Stop Gipuzkoa, que ha resultado ser un punto de referencia imprescindible en la lucha contra este índice. En 2013 presentamos la primera demanda de nulidad que fue estimada por el Juzgado Mercantil de Donostia, perfecto conocedor de la normativa y jurisprudencia comunitarias. A esta primera demanda le siguieron unas cuarenta más, también aceptadas por el mismo juzgado. Fue un subidón que duró poco porque, meses después, todas fueron revocadas por la Audiencia Provincial de Gipuzkoa, con argumentos que seis años más tarde han sido rechazados por el TJUE. Al final, el Juzgado Mercantil de Donostia tenía razón, pero el daño causado a aquellos 40 afectados resulta irreparable, sin que, una vez más, nadie asuma la responsabilidad del error y sus consecuencias.

Acudimos, ya en 2014, al Juzgado Mercantil de Victoria con demandas de afectados alaveses, que fueron estimadas y, ahora sí, confirmadas por la Audiencia Provincial de Alava, que entendió que los bancos no habían informado a los clientes de su peculiar método de cálculo y, sin darles la oportunidad de comparar con el Euribor u otros índices, les habían impuesto el IRPH si querían contratar el préstamo hipotecario. La UCI (Unión de Créditos Hipotecarios) y la Caja Rural de Navarra se conformaron, pero Kutxabank recurrió ante el TS, quien decidió, en Sentencia 669/17, de 14 de diciembre de 2017, con dos votos discrepantes, que tratándose de un índice oficial no era necesaria explicación alguna, porque cualquier “consumidor medio (...) y razonablemente atento y perspicaz” sabe que un préstamo hipotecario se compone de un índice de referencia y un diferencial que se le suma. Punto final.

Esta sentencia fue un tremendo palo. La Banca se vino arriba y una mayoría de jueces se limitaron a quitarse el problema de encima haciendo copia y pega de la Sentencia del TS, sin atender a nuestras razones. Basándo-

**LA JUSTICIA
NO ESTÁ CIEGA,
ES QUE ESTÁ
CARÁ AL SOL.**





nos en la gravedad de lo dicho por los dos magistrados discrepantes en el sentido de que la sentencia era contraria a la jurisprudencia del TJUE, nos volcamos en el intento de que, por favor, preguntaran a éste. Pero fue en vano. Era pegarse contra un muro día sí y día también.

Elevar una cuestión prejudicial ante el TJUE no es coger el teléfono y preguntar a los Magistrados, se trata de un proceso laborioso que obliga al juez que pregunta a un minucioso trabajo comparativo de las normas comunitarias en relación con las normas y sentencias nacionales para que se observen los puntos de conflicto que obliguen al TJUE a poner orden. Son muchos los jueces que no están por la labor. Muchos. Es lo fácil y

además, no te ganas enemigos ni pones en riesgo tu ascenso en la carrera judicial.

Y así, cuando ya estábamos a punto de tirar la toalla, cuando pensábamos que todo el esfuerzo había resultado inútil, el Juzgado nº 38 de Barcelona aceptó elevar una serie de preguntas al TJUE en la línea de los dos votos discrepantes del TS y para que se decidiera si la entidad bancaria tenía obligación de informar y, de ser así, qué tipo de información debía dar para entender que su conducta era transparente.

El Juzgado nº 38 de Barcelona nos pidió a las partes que propusiéramos las preguntas que deseábamos formular y, en febrero de 2019, ante la Gran Sala del



Deberán ser las Plataformas de afectados las que nuevamente, desde la calle y a través de tribunales internacionales, solucionen este grave problema social...

cada uno de los quince Magistrados. Luego me sometí a la ronda de cuantas preguntas me quisieron hacer los Magistrados. Salimos contentos. Pudimos detectar el hartazgo del TJUE y de la Comisión Europea viendo que la mayor parte de los pleitos que llegan en relación con abusos bancarios vienen de España. Para reflexionar.

Resultó vergonzosa la intervención de la Abogacía de España, que se centró en solicitar al TJUE que, aunque éste entendiera que Bankia había actuado con falta de transparencia, y que el índice IRPH debía ser excluido del contrato, no condenara a la devolución de lo indebidamente cobrado, evitando una catástrofe para España. Como veis, la Abogacía del Estado confunde los intereses de España con los intereses de la Banca, sin importarle la economía de más de un millón de familias afectadas.

El 10 de septiembre de 2019, el Abogado General dictó sus Conclusiones, en las que nos daba la razón. El 3 de marzo de 2020, el TJUE confirmó estas conclusiones en su Sentencia C-125/18 estableciendo que, dada la especial complejidad del IRPH, la entidad debió explicar a mi defendido su especial método de cálculo y también debió entregarle, a efectos de comparación con otros índices, un documento que recogiera la evolución del IRPH en los últimos años.

Tribunal de Luxemburgo, una sala inmensa, rodeada por las cabinas de los traductores, en la que asentaban 15 Magistrados de los diferentes Estados de la UE, comparecimos mi compañera Maite Ortíz y yo en representación del afectado demandante, los abogados de Bankia como entidad demandada, la Comisión Europea como interviniente obligado, la Abogacía de España como Estado en el que había surgido el conflicto, y la Abogacía de Inglaterra que manifestó tener interés en el pleito.

Dispuse, como el resto de las partes, de veinte minutos para realizar mi exposición. Tuve que hablar muy despacio para que un traductor trasladara al inglés y de ahí el resto de los traductores al idioma de

En ese momento entendí que mi trabajo había terminado y que, las demandas que presentaran los afectados serían estimadas y se haría justicia.

Sin embargo, la Audiencia de Barcelona acaba de resolver en sentido contrario: no hace falta que el Banco de explicación alguna, cualquier consumidor puede acudir al BOE y enterarse de cómo se determina y cómo funciona el IRPH. Como os daréis cuenta, volvemos al punto de partida como si el TJUE de Luxemburgo no hubiera establecido una serie de exigencias.

Paralelamente, la Audiencia Provincial de Sevilla ha dictado una sentencia en la que afirma que ellos, a pesar de conocer la resolución del TJUE, seguirán la doctrina

del TS hasta que éste cambie de criterio. Esto es una prevaricación como la copa de un pino.

Y mientras vamos y venimos del TJUE, mientras tragamos bilis y agotamos dinero y energía en este trajín, miles de casos se cerrarán injustamente sin esperar a nuevas resoluciones, de manera que, aunque nos vuelvan a dar la razón incluso de manera más contundente, para miles de familias será demasiado tarde.

Mientras tanto, ¿qué ocurre con el poder político español? Pues, desde mi punto de vista, ocurre que el índice IRPH viene recogido en una Orden Ministerial que puede sustituirse por otra Orden Ministerial que lo retire definitivamente en beneficio de ese millón de afectados que sufren o han sufrido este abuso perdiendo su

vivienda o sufriendo la exclusión social. Ocurre que tenemos un gobierno *progresista* que sabe perfectamente que el TJUE ha considerado que el IRPH es un índice especialmente complejo, oscuro y caro. Ocurre que, pese a ello, este Gobierno no encuentra hueco en su agenda para modificar la Orden Ministerial, cosa que puede hacerse en cualquier Consejo de Ministros de éstos que celebran continuamente. Ocurre que el actual Ministro de Consumo parece haber olvidado esta problemática, por más que nos apoyara cuando estaba en la oposición. Ocurre que deberán ser las Plataformas de afectados las que nuevamente, desde la calle y a través de tribunales internacionales, solucionen este grave problema social, habida cuenta de que quienes dejaron la calle para entrar en la política se han integrado cómodamente en la casta y todo esto les suena a viejo. ■



I.R.P.H. POST SCRIPTUM

Hoy, 24 de junio de 2020, he presentado un escrito ante el TJUE y ante la Comisión Europea, informándoles de dos hechos muy graves:

- Bankia ha recusado al juez alegando falta de imparcialidad, con lo que se suspende el procedimiento y se retrasan las preguntas al TJUE. Si todo les sale bien, pondrán a un juez más próximo a sus tesis.
- El magistrado José María Fernández Seijo, de la Audiencia de Barcelona, ha sido cazado (existe un video) impartiendo una sesión de trabajo remunerada organizada por el despacho Roca Junyent para los abogados de Unicaja. Se les dictaban las pautas a seguir al presentar sus escritos de recurso. Al Consejo General del Poder Judicial no le ha quedado más remedio que abrir diligencias.

¡A ver qué pasa!

MUSIKA



'F'

THE WILDHEARTS

Reinassance Men (2019, Graphite Records)

La banda de Ginger está de vuelta y con un nuevo discazo bajo el brazo, "Reinassance Men". Los tipos duros de Newcastle lo han vuelto a hacer y en mi opinión hasta lo han mejorado, han sacado un puñado de canciones de las que nos gustan, si, de esas para corear con el puño en alto!

Rockeros todos hasta la médula y con un pasado turbulento, Ginger vuelve de su enésima lucha personal contra sí mismo. Recibimos su LP con gran algarabía.

Surgieron hacia 1989 o 1990 y desde entonces los cambios en la formación y los parones de la banda han sido constantes aunque, no sé cómo, siempre vuelven a la carga.



Estos cuatro inadaptados son una mezcla musical que va desde el rock y pasando a hurtadillas por el pop llega a metalizar su sonido. Por encima de todo, como si fuera el aliño perfecto, su actitud punk. ¿Hay algún otro que haga esto? A este nivel muy pocos.

Recomendable es dedicarles unas cuantas escuchas estos días en que andamos bajos de energía y no la encontramos por ningún lado. Ya veréis, son vitamínicos.

Siempre recordaré la primera vez que los vi, arrasaron con todo lo que pillaron por delante. Muy buenos.

Creo que me voy a darles unas vueltas ahora mismo. ¡Necesito energía doble!

Keep on Rocking! ■■■



Izenbururik gabea. 2020



Izenbururik gabea. 2019

Telmo Lopez

BERTSOLARITZA HONDARRIBIAN

■ IOMANI

(VI)

Gure kolegioak / sagardotegiak Udaregik Hondarribian kantatutako bertsoa aitzakitzat hartu eta Labandibar anaiak eskolatzeko jasan behar izan zuten egoera deitoragarria adieraziz amaitu genuen aurreko ataltxoak: “eraztunaren zigorra”.

Gutxienez XVII. mendetik zetozen euskararen kontrako jazarpen haiek indarrean jarraitu zuten hemezortzigarren eta hemeretzigarren mendeetan ere.

Honela Labandibartar hiru anaia bertsolariak eskolatzeko adinera iritsi zirenean indar batean zegoen eraztunaren zigorra. Hondarribian, 1817an sortu zen Eskola Batzarra deitua arduratzen zen zigor arauak eta gainerakoak ondo beteak izan zitezkeen.

Bost kidez osatzen zen batzarrean, gutxienez erdiak apaizak izan behar zuten eta gainerakoak sekularrak. Hiriko alkatea izaten zen presidentea.

Madriren 1771ko uztailearen 11n emandako errege dekretuak eskolatik kanpo jartzen zituen neskatoak. Beraz, Hondarribiko Udal Eskolara mutikoak bakarrik joan zitezkeen eta hauei irakurtzen, idazten eta kontatzen erakutsi behar zitzaizkien. Eta, noski, eliza amaren doktrina katolikoa.

Ikasleek gaztelera mintzatu zitezkeen edo hobeto esanda, gaztelera ez zen beste hizkuntzarik erabili ez zezaten, nola eskola barruan hala eskolatik kanpo ere, jarritako zigorra zen eraztunarena.

Asteko lehen eskola egunean, maisuak eraztuna jartzen zion hatz batean gaztelera ez zen beste hizkuntza batean ari zen ikasleari. Zigortutako ikasle honek beste bat *harrapatu* behar zuen, eta salatu, gaztelera ez zen beste hizkuntza batean mintzatzen ari zena, eraztuna berari ezartzeko. Honela hatzetik hatzera ibiltzen zen eraztuna astean zehar. Eta maisuak zigor eredu garri bat jartzen zion aste amaieran eraztuna zeraman ikasleari. Kontuak atera euskara baizik ez zekiten hariei, Labandibar anaiak kasuko, zenbaterainoko atzerakoa eragingo zien egoera horrek.

Lekurik gehienetan hau honela izanik ere, orduan ere izan zen irakaskuntza beste bide batzuetatik garatu nahi izan zuenik. Aipagarria da eta azpimarratu beharrekoa, esate baterako, Iturriagak anaiek Hernanin egin zuten bide urraketa.

1817AN HASITA

Hondarribian Eskola Batzarra sortzen zen urte berean, 1817an, ireki zuten Agustin Ignazio Maria Paskual Iturriagak ikastetxe berria Hernanin, Foru Aldundian lortutako lizentziarekin. Bera, bere anaia Kaietano eta Manuel Larrate ziren irakasleak; hirurak ziren apaizak eta hernaniarrak. Agustinek latina, gaztelera, frantsesa eta kristau dotrina irakasten zituen, baina oinarritzat euskara hartuta. Kaietanok matematikak eta geografia irakasten zituen; eta Larrartek, parroko organujolea bera, idazten eta musika erakusten zizkieten.

Denak harrিতuta eta txunditurik utzi zituen beste ikastetxeetan hiru ikasturteetan lortzen zuten maila Hernaniko honetan bi urtetan gainditzen zutela ikusita.

Gainera hemen ez zen *eraztunik* erabiltzen. Barne araudiak garbi jartzen zuen: “*Debekatua dago fisikoki zigortzea; ez irakasleek eta ez inspektoreek ezingo dute ikaslerik jo*”.

Ez da harritzekoa eta, halako arrakastak inbidia galantak sortu izango zituen, eta ikastetxea itxi eta erbestera jo beharrean izan zen Agustin Paskual Iturriaga. Baina itzuli zen 1817an hasitakoari jarraipena ematera. Erbestealdian ikasleentzat prestatu zituen irakurgaiak, ipuinak bertsoetan eta abar, bi liburu galtzarpean zituela etorri ere, etorri izango zen.

1851ko martxoaren 30ean hil zen Hernanin bertan, 74 urterekin. Berea du letra San Inazioaren martxak eta berea da Hernaniko hilerriaren sarreran dagoen esaldia: “*Laster esango da zuengatik, esaten obi dana gugatik: hil ziran!*”.

Lastima inork gehiagok ez zuelako adorerik izan Iturriagak markatutako ereduari jarraitzeko!!!

HEMERITZIGARREN MENDE ISTILUTSUA

Hondarribiko hiri txit goreneko agintari zibilek, militarrek eta eliz gizon buruek ez zuten euskararekiko sentiberatasunik erakutsi XIX. mende hasieran. Neskek udal eskolan sartzerik ez zutela, eta mutilak zigorpean sartu behar, eskolatu nahi bazuten. Eguneroko hizkera zuten euskara ezin erabili, ez-eta doministiku egiteko ere!!!

Ezin ahaztuko dugu, bestalde, XIX. mendea istilutsua izan zela Hondarribiarentzat ere. Hasi mende hasierako frantseste garaitik eta 1876ko foruen galtzerainokoan, karlisten gerrateak tartean zirela, danbor hotsa eta tiro zarata gehiago izan zen txilibitu soinua baino Olearso inguruetan.

Dena kaltetan ez omen zela izan esaten dute batzuek. Izan ere, karlisten eta liberalen arteko gerrek bertso paperen ugaltze izugarri bat ekarri baitzuen ia Euskal Herri osoan. Alde bakoitzak beren balentriak, proklamak eta ekintza gogoangarrien berri bertso jarrietan ematen hasi baitziren.

Anaia arteko gerrek badute beste ezaugarri bat, herriko pertsona seinalatuen lekuz aldatzea segurtasunaren bila. Eta honela iritsi zen Hondarribira Frantzisko Artola Larrañaga tolosarra, karlisten ihesi.

Frantzisko Artola Larrañaga hau, esan bezala, Tolosan jaio zen 1815eko martxoaren seian. Aita, Juan Antonio Artola Erxeandia, Astigarragakoa zuen, ama Maria Antonia Larrañaga Ganuza, Tolosakoa. Senar-emazte hauek sei seme-alaba izan zituzten; beraietatik bi, euskal letretan oso ospetsuak izan ziren: Frantzisko eta Ramon. Biak utzi behar izan zuten jaioterria liberal pentsamoldekoak zirelako. Ramon Donostiara joan zen eta Frantzisko, Hondarribira.

Noiz etorri zen Frantzisko Hondarribira? Oraingo ez dakigu. Baina peskiza hauetan gidari izan dugun Fermin Olaskoaga adiskideak aurkitutako arrastoen arabera, Frantzisko Tolosan ezkondu zen 1838ko irailaren bian, Frantziska Erroizenea Telletxearekin. Bi seme izan zituzten; bata Juan Nemesio 1843ko abenduaren 19an jaioa, eta bestea Jose 1848ko ekainaren hogeita hiruan jaioa. Tolosan jaio ziren biak ere.

Beraz, data hauek baino geroago baina azken karlisten gerratea baino lehenago etorriko zen Hondarribira. Bere bizitzako azken etapa Irunen egin zuen, 1898ko otsailaren bian zendu zen arte.

FUEROAK

Izenburu honekin bertso sorta bat jaso zuen Antonio Zavalak, Auspoa Liburutegiko 129. Alean, 1859-1860 urteetan Espainiak Marokorekin izandako gerrari buruzkoak biltzerakoan. Sinadura bezala F.A. azaltzen omen da. Zavalak ez zuen jakin deitura horiek norenak izan zitezkeen zehazten.



Hori bai, bere ustetan F.A.k *“bertsogintzari eta erabiltzen dituen arrazoibideei begiratuta, ez dugu uste mendiko bertsolariren bat denik, gizon eskoladun bat baizik”*.

Kontua da, hemen lehen karlistaldiaren amaieran Bergaran izandako besarkada ospetsuaren ondorioz, euskal foruak kili-kolo ikusten zirela. Afrikan gerra sortzen da, eta nahiz eta euskal mutilak soldaduskara



joatera derrigortuak ez egon, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundiek gerra honetan Espainiako beste probintzien pareko jokatzeari hobetsi zutela. Inork zer-esanik izan ez zezan foruen kontra erasotzeko.

Honela, 2.500 errealekin Marokora joan nahi zutenek deia zabaldu zitzaizkien.

Antonio Zavalaren ustetan, hala dio *Afrikako Gerra* (1859-1860), Auspoa 129. Aleko 30. orrialdean, beste hainbat arrazoiren artean, aipatutako horrengatik “diputazioak-edo eskatuta, bertso-jartzailereren batek bertso hauek paratuko zituan”.

Zortziko txikian jarritako 20 bertsoak osatzen dute sorta. Grafia eguneratu, eta hemezortzigarrenak honela dio:

*Obligazioz da eta
joan behar gerrara,
lege maitagarriak
gordeko badira;
Tanjerren ipinirik
español bandera,
denbora labur barru
etxerako gera.*

Bertso hauen eta gerra hartako berri jakin nahi duenak aukera aukeran dauka Antonio Zavalak Auspoako 129. alean egiten duen ikerketa eta informazio bilduman.

“NIRE ATTAREN ATTONA ZEN”

Fernando Artola Sagarzazu, *Bordari* euskal zale handiak esanda dakigu F.A. bertsolariaren berri gehiago. Antonio Zavalak bere ezintasuna aitortu ondoren, Bordarik dio “nire attaren attona zen Frantzisko Artola Larrañaga...

Ramon Artola Larrañaga poeta ugari, on eta ezagunaren anaia zaharrena zen. Tolosarra. Liberala”. Baieztape hori *Bakoitzak berea* liburuan egiten du Bordarik, 517. orrialdean.

Liburu horretako beste pasarte batean “F.A. hori nire bisabuelua (birraitona) da dudarik bage. Eskoladuna zen. Ta Hondarribiko bertso-kanta paperetan ere F.A. dator. Tolosatik hona ihesi etorria, ta hemen liberalek entxufatua izango zen. Nire aitaren paidia zen eta honen jaiotze-agirian *Investigador de bienes Nacionales* zela esaten da”.

Udal Liburutegian egin izan dugu galde Hondarribiko bertso-kanta paper horietaz. Baina ez digute arrastorik eman.

Jon Bilbaok bere biografietan jasotzen duenez, 1876ko urriaren 15ean, Hondarribiko elizatik Olearsoko bere lekura Ama Guadalupekoa eramaterakoan kantatutako bertsoak Frantzisko Artola Larrañagarenak izan omen ziren. Tamalez gaur egun galduak diren bertsoak.

Ordukoak eta gaur egunera arteko bidea egin dutenak dira Guadalupeko Amari kantatzen zaion Salbeto bertsoak. Dirudienez hauek ere Frantzisko Artola Larrañagak eginak dira.

Guadalupeko Amaren Goralmenak deiturapean ezagutzen da egun, lehen bederatziruena bezala aipatzen zena. Bederatziruena edo nobena honen gaztelerazko letra Guadalupeko erretore zen Diaz Zamorano apaizarena omen da. Eta honek eskaturik euskaratu, edo euskaraz birmoldatu, izango zuen Frantzisko Artola Larrañagak. *Aingeruen erregiña / zeruko izar argia. Kristauon Ama gozoa / guzaz erruki zaitia*”. Honela du estribilloa bederatziruengo bertso sortak; *euskaritxo*a, Frantzisko

Aulki bat elurretan
Uxue Alberdi



Maribel Gartzia

AULKI BAT ELURRETAN
Uxue Alberdi

Elkar argitaletxea, 2007
(eleberria)

Uxuek etxe berezi bat sortu du, gela askorekin. Ate bakoitzaren atzean ipuin bat, diferentea, erakargarria. Batzuetan etxe ezezagun baten moduan, apur bat kostatzen zaigu kokatzea. Suedia, hotza eta elurra maiz topatzen dugu. Eta gela batean gerta daiteke beste gelan eza-gutu genuen pertsoniarekin topo egitea berriro.

Ez nuke esango liburua alaia denik. Bizitzaren isla denez, hainbat sentimendu diferente sortzen dizu irakurtzean. Halere Uxueren sormenak irakurlearen bizipoza pizten du. Espazio eta ordenarekin ere jolasten du, eta niri behintzat deseroso sentiarazi zitzaidan une batean. Klabea topatu arte. Orduan idazle eta irakurlearen arteko konplizitatea sentitu nuen eta irakurtzearen plazera areagotu zitzaidan.

Barruratu zaitez sormenez betetako etxe honetan. Hondarribiko liburutegian duzu ate nagusia. ■■■

(Liburutegian badago)

Artola Larrañagak jatorrian jarri bezala. Eta “*Olearsoko mendian / agertze miragarria...*” hasten da lehen bertsoa.

“*Nola estimatzen eta kantatzen dugun hondarribiarrok bederatziurren hori!!! Ni nabiko harro nago horregatik. Allakuidaus!!!*”, dio Bordarik aipaturiko *Bakoitzak Berea* bere liburu horretan.

Frantzisko Artola Larrañagak Irunen egin zituen bere azken urteak. Eta Bordariren eskutik dakigu bere erretratu eta karpeta guztiak Irun erre zenean galdu zirela, azken gerratean. Honela txertatu izango zen artolatarren mentua Hondarribia-Bidasoko gizartean. ■





**ESTAMOS TRABAJANDO
PARA USTEDES.
DISCULPEN LAS
MOLESTIAS**



ZAHARRAK BERRI

URTEBETEKO AGINTALDIKO BALANTZEA

Ilegala zela esan genuen, baina ez ziguten kasurik egin. Orain hiru urte esan genuen Hiri Antolamendurako Plan Orokorra irregulartasunez beteta zegoela, eta halere Txomin Sagarzazuk aurrera jarraitzea erabaki zuen. Denetarik esan ziguten, gezurretan ari ginela, manipulatzaileak ginela, herriaren kontra ari ginela, erotuta geundela... Politika egiteagatik, herriaren eta herritarren alde egiteagatik, udal jardueran legaltasuna eta demokrazia aldarrikatzeagatik.

Plan Orokorra ezereztatzearen ondorioak zenbatezina dira. Etxebizitzak bakarrik kontuan izanik 1.500 familiari eragingo die; 17.000 biztanleko herri batean. Ehunka obra txiki geldituko dira, eta hiru urte hauetan egindako beste hainbat ordenamenduz kanpo geratuko dira... Atzerapausoa ikaragarria da, 1998ko arau subsidiarioetan oinarrituta jardun beharko dugulako. Sagarzazuk XX. mendera eraman gaitu atzera.

Horri buelta eman behar zaio, eta Abotsanitzek bi modu ikusten ditu horretarako. Batetik, 1998ko arau subsidiarioek ahalbidetzen dituzten planak garatzea, hala nola, Presa eta Damarriko babes ofizialeko etxebizitzak. Eta bestetik, parte hartzean eta elkarriketan oinarritutako plan orokor berri baten prozesua abiatzea. Diseinatu dezagun denon artean Hondarribiak eta hondarribiarrek behar duten plan orokorra, ausarta, eraginkorra, modernoa, ingurumenarekiko errespetuzkoa... eta legala.

Horretarako bada, kontatu dezatela Abotsanitzekin. Herriaren eta herritarren interesen gainera interes partikularrak jartzeko bada, aurrean izango gaituzte.

Pertsonal falta larria

Beste politika batzuk behar dira. Herritarrek ordaintzen dutenaren eta jasotzen dutenaren arteko oreka, udalak biltzen duen eta inbertitzen duenaren arteko oreka. Hori behar da. Hondarribiko Udalak 3.200 euro zor dizkio herritar bakoitzari. Dagoeneko 54 milioi euroko soberakina du pilatuta, ia hiru urtetako aurrekontuaren adina. Urtero-urtero, gastatzen duena baino gehiago jasotzen du, iaz 3,5 milioi. Bi arrazoiengatik: bat, proiektuak burutzeko udal gobernuaren gaitasun faltagatik; eta bigarrena, udal gobernuaren erabaki politikoagatik.

Erabaki politikoa da pertsonal gehiago ez kontratatzea eta lanpostua uzten dutenak ez ordezkatzeko. 2017 urtean 47 funtzionario zituen Hondarribiko Udalak, gaur 36 dira. Dagoeneko 18 dira bete gabe dauden udal zerrendako postuak eta horrela ezinezkoa da proiektuak burutzeko.

“Nola izango da hori erabaki politikoa? Zeinek emango dio bere buruari harrika?” pentsatu daiteke. Azken hiru urtetan 25 lanpostu sortzea erabaki dugu Hondarribiko Udalean, eta bakarra exekutatu da. Adibide argi bat: azken urteetan galdu eta ordezkatu ez den lanpostuetako bat, hain zuzen ere, kontratazio teknikariarena da.

Erabaki politikoa da zerrendako lanpostuak ez betetzea. Erabaki politikoa da udal langile taldearen %60a baino gehiago interinoak izatea, legeak esaten duen arren 2020aren bukaeran ezin duela %7a gainditu. Erabaki politikoa da urtetik urtera onartzen diren proiektuak ez burutzeko. Erabaki politikoa da jasotzen dena baino gutxiago gastatzea. Eta erabaki politikoa da udalak herritar bakoitzari 3.200 euro zor izatea.

Eskubideen berme falta

Agintaldiko lehen urtea pasatu da. Abotsanitzek bost urte eman ditu dagoeneko Hondarribiko Udalean. Bosturteko bat hondarribiarren alde lanean, bosturteko bat hondarribiarren alde borrokan.

“Hondarribiko zinegotziek ez dute informazio eskubidea bermatuta”. EAJ barne, udal talde guztiek onartu zuten hori iazko urriko plenoan, Abotsanitzek aurkeztutako mozioaren alde bozkaturik. Onartzen dute, baina informazioa galarazten jarraitzen dute era berean. Udal gobernuak badu espedienteetara eta administrazio agiriara jotzeko eskubidea edo administrazio agirien kopiak lortzeko aukera, gainontzekook ez. Herrialdeko herri bakarretakoa da oposizioko zinegotziek ezin dutena Gipuzkoako Foru Aldundiaren sistema informatikoa erabili, sartzeko kodeak ukatzen zaizkiolako.

Gure lana egiteko beharrezkoak diren agiriak ukatzen dizkigute, berez eskura eduki beharko genukeen paper bakoitza lortzeko mila buelta eman arazten dizkigute,

aurkezten ditugun mozioei epez kanpo kontramozioak aurkezten dizkigute, oposizioa egiteko trabak jartzen dizkigute... Baina halere, ari gara. Eta tinko jarraituko dugu.

Gehiengotik nagusikeriara

Bost urte egin ditu Abotsanitzek Hondarribiko Udalean, Bost urte Txomin Sagarzazuk aginte makila eskutan duela. Eta ezin ukatu gustu hartu diola. “Elkarrizketa erabiliko dut tresna nagusi modura” esan zuen iazko ekainaren 15ean, bigarren kargua hartzerakoan. Handik 11 egunera Zaldunbordako dekretu madarikatu hura sinatu zuen, inorekin kontsultatu gabe. Lehen momentutik bertatik gehiengo absolutuaren abusua egin du EAJk.

Nagusikeriaz eta dekretu kolpez gobernatu du Sagarzazuk, oposizioa baztertuz eta herritarrei izkin eginez. Eta gezurretan aritu da. Zaldunbordaren kasuan, blues jaialdiaren gatazkan, kontratazio irregularretan, pandemiaren kontrako premiazko diru-laguntzen gaian, plan orokorraren kontuan... Alkate denetik indar gehiago jarri ditu propagandan proiektuetan baino. Hori da herritarrek duten ustea, eta zaila da sentazio horren kontrako argudioak ematea. Zer egin du bost urtetan? Zein proiektu eraman ditu aurrera? Hori bai, lorpen handi bat ezin zaio ukatu:



XX. mendera eraman gaitu bueltan plan orokorraren ezeztatzearekin. Ezin esan hori lorpen handia ez denik.

Baldin badago hitz bat Sagarzazuren agintaldiaren orain artekoa laburbiltzeko balio dezakeena, ‘porrota’ da. Eta oraindik beste ia hiru urte ditugu aurrean. Hiru urte Sagarzazuren agintaldia bukatzeko. Eta hiru urte horietako egun bakoitzean aurrean eta ondoan izango du Abotsanitz Udal Taldea. Aurrean, nagusikeriazko politikak salatzen. Eta ondoan, hondarribiar guztien aldeko proposamenak egiten jarraitzeko.

Hori izango da Abotsanitz Udal Taldearen erronka hurrengo hiru urteetan. Proposamenen, elkarrizketaren, akordioen, eta, oro har, eguneroko lanaren bitartez, hondarribiarren bizitza hobetzea.



Igor Enparan Araneta,

Abotsanitz Udal Taldeko bozeramailea

Agintaldiko lehen urtea gogorra izan da, gure programari heltzeaz gain Hondarribiko Udalean bizi dugun oinarri demokratikoen gainbeheraren inguruko lanketa indartsua egin behar izan dugulako.

Oinarri demokratikoez lau ardatz nagusi dituzte. Askatasuna, justizia, berdintasuna eta elkartasuna. Eta ardatz hauek jorrazteko ezinbestekoa dira gardentasuna eta informaziorako eskubideak bermatuak izatea. Baina Hondarribiko Udalean zinegotzi guztiok ez ditugu bermatuak lanerako aukera berdina. Eta, udal ordezkariok ez badugu informazio eskubidea bermatuta, ez dut pentsatu nahi nola suertatuko zaion herritarri informaziorako sarbidea. Ezinezkoa!

EAJk gehiengoa du Udalbatzan eta nabarmen erabiltzen du gehiengo hori. Gogoratu besterik ez dut Zaldunbordan merkatalgune erraldoi bat egitearen proiektuarekin nola jokatu izan duen. Gehiengoa interes gutxi batzuen alde.

Udalan lanean daraman denboran jaso dudana sentazioa da herritar guztiak ez garela berdina, udalak banakako tratua egiten dituela herritarrekin eta ez duela gizarte osoari zuzenduriko eskaintzarik. Gizarte kohesio eta gizarte justiziaren ikuspegitik jokabide oso kaltegarria dela uste dut. Tamalez, badirudi EAJri etekinak ematen dizkiola, orain arte behintzat.



Lupe Queiruga Oronoz,

Abotsanitz Udal Taldeko zinegotzia

Lau urtean behin hiritarrok erabaki garrantzitsu bat hartzen dugu: gure herriko ordezkariak aukeratu ditugu. Hamazazpi pertsonen esku uzten dugu udal jarduera. Baina, honen ondorioa ez luke izan behar hiritarrek jarduera horretan eta erabakietan parte hartzerik ez izatea.

Politika berriei bidea emateko garaia da, non hiritarren parte hartzea ez den hauteskundeetara mugatuko. Udal jarduera egoki batean erakundeek interes orokorraren alde erabakiak hartzeko eta modu eraginkor batean jarduteko gaitasuna izan behar dute. Eta horretarako, ezinbestekoa da herritarren iritzia ezagutzeko, gizartearen eskakizunei erantzun egoki bat eman ahal izateko.

Zenbait gaietan legeak prozesu parte hartzaileak behartzen ditu, baina gutxienezko edukia dute eta herritarren parte hartzea oso mugatukoak. Alde Zaharrek plan berezian, Mendelu-Eskapatxulon, mugikortasun mahaian, Zaldunbordaren plan partzialan... Gai horietan prozesu parte hartzaileak burutu dira, baina ez dira nahikoak izan, eta gabezia horrek herri aktibazioa eragin du.

Hondarribiak araudi bat behar du herritarren erabakitzeko ahalmena arautzeko, ezinbestekoa delako herritarrek udal jardueran parte hartzeko ekimenak ahalbidetzea.

BALANCE DEL PRIMER AÑO DE

MANDATO. Les avisamos de que el PGOU era ilegal, de que contenía irregularidades. Nos llamaron de todo y siguieron adelante. Y ahora vemos que las consecuencias de la nulidad decretada por el TSJPV son terribles. Txomin Sagarzazu nos ha llevado de vuelta al siglo XX. No obstante, en Abotsanitz creemos que deberían desarrollarse los planes amparados por las normas subsidiarias de 1998, como las promociones de vivienda protegida de Presa y Damarri. Y, sobre todo, deberíamos elaborar un nuevo plan general basado en la participación popular y en el diálogo.

El Ayuntamiento de Hondarribia debe 3.200 euros a cada hondarribitarra. El remanente actual asciende a 54 millones de euros porque cada año se gasta mucho menos de lo que se ingresa y siempre sobra dinero (3,5 millones el pasado ejercicio). La principal causa es la no ejecución de proyectos por falta de personal, y la causa de esta falta es política porque en los últimos tres años hemos aprobado en pleno la creación de 25 puestos de trabajo pero sólo uno de ellos se ha materializado, y esto es así porque el gobierno municipal no ejecuta la decisión del pleno de contratar personal para cubrir la plantilla.

En el pleno de octubre de 2019 todos los grupos, incluso el PNV, votaron a favor de una moción de Abotsanitz que denunciaba que a los concejales se nos niega el derecho a la información. Pero la siguen negando entorpeciendo nuestros trabajos. Aún así, seguimos y seguiremos sin bajar la guardia.

Hace poco más de un año que Sagarzazu tomó por segunda vez posesión del cargo de alcalde. El 15 de junio de 2019 dijo que, para gobernar, su principal herramienta sería el diálogo. Once días más tarde firmaba el maldito decreto de Zaldunborda. En los cinco años que lleva como alcalde ha gobernado a golpe de decreto, abusando de la mayoría absoluta que poseen, despreciando y mintiendo tanto a la oposición como al pueblo. Y ¿qué ha conseguido? Absolutamente nada, salvo mandarnos de vuelta al siglo XX.

Le quedan tres años, y en cada uno de esos tres años el Grupo Municipal Abotsanitz seguirá trabajando, denunciando los abusos de poder y presentando propuestas para mejorar la vida de las y los hondarribittarras.



Estitxu Urtizberea Sorzabal,

Abotsanitz Udal Taldeko zinegotzia

Urtebete pasatxo da karguari zin egin genionetik. Banekien erronka zaila izango zela. Agintaldia Zaldunbordako outletarekin lotutako dekretu 'zikin' harekin hasi genuen. Astebete lehenago udal gobernu taldearekin eduki genuen bileran akordatutako asmo onak garai hobeetarako utzi zirela argi geratu zitzaidan. Ez nuen espero, ordea, udalak duen egitura eta moduekin topatuko nintzenik.

Bada denbora bat erakunde-adimentsuez hitz egiten dela. Antolaketa-eredu berriek etorkizuna eta pertsonak dituzte ardatz, eta etengabe ikasten eta aldatzen doaz eguneroko konplexutasunari erantzun egoki bat emateko. Hori egin ahal izateko *redarquia* edo sarea da eredu egokiena. Baina gure etxean zaharkituta dagoen antolaketa-eredu hierarkizatua topatu dut, motela, deserosoa eta egunean eguneko betebeharrak aurrera ateratzen zentratutakoa.

Nik, tamainaz ertaina den erakunde batean egiten dut lan. Nahiko saretuta gaude eta, erakundearen izaeragatik, informazioa zabaldu eta lortzea ezinbestekoa da. ISO 27001 (informazioaren segurtasuna) araudiaren pean egiten dugu lan, beraz, ez dira kontrajarriak informazioa banatzea eta hau babestea.

Baina Hondarribiko Udalean informazioa lortezina da, eta honengatik guztiagatik, lan baldintzak ez dira errazak.



Aitzol Arroyo Tumas,

Abotsanitz Udal Taldeko zinegotzia

Politika, azken hamarkadetan, estralurtar bihurtu den gai bezala defini genezake. Akaso horrenbeste ustelkeri eta azpijokoren ondorioz, baina izan daiteke gizarteak joera aldaketa egin izanagatik ere, edo utzikieriaz politika gutxi batzuen esku geratu izanagatik. Beste irakurketa bat ere egin daiteke: norbanakoaren interesak lehenetsi direla interes kolektiboaren ginetik, eta hala, gizarte bezala talde izaera galdu izan duela. Honek, ezinbestean, haustura bat ekarri du, aurreko belaunaldietako gizartearen ez zegoena (beti ere politikari dagokionez).

Bigarren errepublika garaian zein frankismo amaieraren ostean, militantzia aktiboa ugariagoa zen gaur egungoarekin alderatzen badugu, batez ere gazteen artean. Izan ere, gazteak-politika binomioak lotura oso estua zuen, gazteak jakitun baitziren politikaren garrantziaz eta herriaren zein norbanakoaren bizi-kalitatea hobetzeko gaitasunaz.

Gauzak hala, nabaria da politika berriz ere gazteengana hurbiltzeko beharra. Politika 'tresna' gisa baliatu eta ulertu behar da, herria zein gizarte hobetzeko tresna gisa, ez mozkin ekonomiko edo beste motatako mesedeak eskuratzeko tresna.

BERRIRO EGIN DU VUSAK MULIATEN

Hondarribiko Udaleko zerbitzu teknikoek irregulartasun larriak antzeman dituzte VUSA eraikuntza enpresak Saindua eta Tximista kaleen artean eraikitzen ari den Patximoskenea promozioan. Apirilaren 29ko txostenak agerian utzi zuen enpresak hasierako proiektua eraldatu egin zuela, etxebizitzak eta gune auxiliarrak lotzea ahalbidetuz. Besteak beste, eraikuntza maila gainditu eta suteen kontrako erresistentzia murriztuko luke horrek.

Obrak 2018ko urrian jaso zuten eraikuntza baimena. Baina baimen horretan dagoeneko adierazten zen aurkeztutako proiektuan aldaketan egin beharko zirela, zehazki, sestra azpiko txokoen planoetan. Txokoetako komunak kendu beharko zituen enpresak, eta ezingo luke etxebizitzak lokal nagusirik txokoetan eraiki (logela, egongela...). Alegia, txokoak eta goiko etxebizitzak elkartuz duplexak ezingo zituela sortu oharatzen zitzaion enpresari.

Apirilean, berriz, honako aurkitu zuen udal arkitektoak: azken solairuko forjatuetan baoak egin zirela eta zulo horiek azken solairua estalkipeko solairuekin lotzea baimentzen zutela. Hau da, bao horiek etxebizitzak eta trastelekuak eskailera baten bidez lotzea eta, horren bitartez, duplexak egitea ahalbidetzen zela.

Ustezko berrerortzea

Ez da lehen aldia. Azaroan Abotsanitzek salatu zuen 2019an Muliatego Vusaren hiru promozioetan irregu-

lartasunak antzeman zirela. Ikusketa ondorioztatu zuen lanak ez zirela egin baimendutako proiektuei jarraituz, baina egun gutxietara enpresek bizigarritasun baimenak jaso zituzten, baita irregulartasunak zuzendu gabe jaso ere.

Aurrekariak ikusirik, Abotsanitz Udal Taldeak Patximoskeneako obraren kontrol jarraitua egitea eta kontrol horren txostenak oposizioko lehen alderdiarekin konparatzea eskatu du Hondarribiko Udalean.

NUEVAS IRREGULARIDADES DE VUSA.

Los servicios técnicos del Ayuntamiento han detectado graves irregularidades en las viviendas de la constructora Vusa en Patximoskenea. En la visita técnica del 28 de abril se constató que en los forjados de la última planta se habían practicado huecos que permitirían la conexión mediante una escalera de las viviendas con los trasteros bajo cubierta, superando la edificabilidad máxima permitida de la parcela y repercutiendo negativamente en las condiciones de protección frente a incendios.

A finales de 2019 Abotsanitz denunció que en tres obras de Vusa en Muliatego se habían realizado modificaciones en el proyecto para crear duplex uniendo viviendas y locales auxiliares. Las inspecciones técnicas detectaron las irregularidades, pero a los pocos días la promotora, sin haberlas corregido, recibió las licencias de habitabilidad.

Por todo ello, el Grupo Municipal Abotsanitz ha solicitado al Ayuntamiento que se lleve a cabo un control continuo de la obra de Patximoskenea.

- TXIKOTIA -



GABARRARI

BERDEAK IZANGO GARA GLIFOSATORIK GABE

Ekainaren 18ko osoko bilkuran glifosatoaren erabileraren kontrako mozioa onartu zuen Hondarribiko Udaltzako Abotsanitz Udaltaldeak aurkeztutako mozioa eztabaidatu zuten plenoan eta alderdi guztiek mozioaren alde bozkatu zuten. Onartutakoaren arabera, Hondarribiko Udaltzako ezingo du glifosatoa duten produktuak erabili herriko belardi, parke eta lorategietan, herriko nekazariei gauza bera egiteko eskatuko die, eta kanpaina informatiboa egingo du herritarrei produktu ekologikoen onuren berri emanez.

Landareen hazkundera kontrolatzeko udaberrian erabiltzen den espektro handiko herbizida da glifosatoa. Ezagutzen den herbizida eraginkorrena da, baina oso kaltegarria era berean, ingurumenarentzat nahiz osasunarentzat. Osasunaren Munduko Erakundeak (OME) minbizia eragin dezakeen produktuen zerrendan kokatu duen arren, Hondarribiko lorezainek glifosatoa toki publikoetan erabili izan dute.

Orain arte baino modu osasuntsuago eta ingurumenarekiko errespetuzkoagoan bizi nahi badugu, garena baino berdeagoak izan nahi badugu, glifosatorik gabe izan behar du horrek.

SIN GLIFOSATO, MÁS VERDES.

El Ayuntamiento ha aprobado por unanimidad una moción presentada por Abotsanitz contra la utilización del glifosato. A pesar de que este herbicida de amplio espectro está considerado por la OMS como “posible cancerígeno”, en Hondarribia se ha venido utilizando hasta ahora en lugares públicos.

Según lo aprobado, el Ayuntamiento no podrá utilizar este herbicida en campos, parques y jardines, e informará a la población de las ventajas de utilizar alternativas ecológicas.



IRAKURRIENAK

abotsanitz .eus

1. 'Itxeki Hondarribia!' ez da udal taldeok adostu genuena

2020-05-04



2. Hondarribian hirukoiztu egin dira eraso sexistak urtebetean

2020-06-08



3. Montaik bikoitza baino gehiago kobratu zuen baserriarren azokagatik

2020-02-07



4. Hondarribiko Udaltzako lanpostuak sortuz erantzun behar dio pandemiari

2020-05-15



5. VUSAren irregulartasun gehiago Muliaten

2020-06-05



6. Eragileek azalpen bat merezi dute

2020-07-01




7. Soluzio eske Mendeluko enbuturako

2020-07-06



Para ver los contenidos en castellano entra en **abotsanitz.eus** utilizando este código QR y busca el contenido con la lupa






← www.abotsanitz.eus

 [abotsanitzherribatzar](https://www.instagram.com/abotsanitzherribatzar) →

←  [@abotsanitz](https://twitter.com/abotsanitz)

 www.facebook.com/Abotsanitz/ →

